

EUSKALDUNAK IPAR AMERIKAN:
NABO elkarteak mende erdia darama
euskal kultura sustatzen > 4

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA
Euste-hormak eta zutoinak


PELLO OTXANDIANO > 11

2022ko maiatzaren 20a | XVII. urtea • 825. zenbakia.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info

GAZTEAK PREST, BOTOA EMATEKO ETA HERRIA EGITEKO



HAUTESKUNDEAK ETA
GAZTEAK. HELDUAGOEN
BEGIRATUAK
GAIZTOTUTAKO
BINOMIOA IZAN OHI DA.
GAZTEAK PREST ETA
PRESTATUTA DAUDE
HAUTAGAI IZATEKO ETA
HAUTUA EGITEKO. EZ
BAKARRIK GAZTEEN
ARAZOAK JOMUGAN,
GUZTIONTZAKO HERRIA
ERAIKITZEA BEGIETAN
BAIZIK. > 12 Jon URBE | FOKU



NABO, mende erdiz Ipar Amerikan euskal kultura sustatzen 04

Urrearen ustiaketak tentsioa areagotu du Kolonbiako ipar-mendebaldean 08

Gazteak, prest eta prestatuta: lehenengoz bozkatzaille edo hautagai izango direnen ahotsa 12

Drogueria Amutio, 75 urteko bidea osatu duen Gernikako denda 22

Ikusmira: Lokatzetan, herri bat 25

«Leer la vida/ Bizitza irakurri», Gerardo Markuletaren poesia zatitxo bat gaztelaniara itzulita 26

Antiguako Pilota Txapelketa, 75 urte ikuskizuna ziurtatzen 27

Juantxo Egañaren behatxulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Maite Ubiria Beaumont:** Surflari independentistak Ozeano Barean
- 10 **Ula Iruretagoiena Busturia:** Interneten materialtasuna
- 11 **Pello Otxandiano:** Euste-hormak eta zutoinak
- 18 **Unai Gaztelumendi**
- 19 **Koldo Sagasti:** Euskalwashing
- 19 **Amagoia Mujika Telleria:** Bakea eta bakeosoak
- 20 **Beñat Gaztelumendi:** Aldaketena
- 21 **Iker Barandiaran:** Gora zu eta zure umorea
- 30 **Garazi Goia:** Intentzioa ez da nahikoa



{ datorrena } Maite UBIRIA BEAUMONT

Surflari independentistak Ozeano Barean

Moetai Brotherson (Tāvini Huira'atira) presidente izendatu berri dute. Lore-lepoko, janzkera tradizionala eta geroari heltzeko begirada berria Papeetetik. Independentista polinesiarraren izendapena gauzatu eta egun batzuetara, ordea, Parisen, bere egitasmo nuklearrari bultzada emateko xede, dozena erdi bat errektore eraikitze egitasmoa berretsi du Emmanuel Macronek telebistaren bidez.

Memoria egin dezagun. Iraganetik hasita. Ozeano Bareko uhartediaren kostatik hurbil 200 bat entsegu atomiko burutu zituen frantses Armadak 1966 eta 1996 artean. Eztanda haietako bakoitzak 1945. urtean Hiroshima suntsitu zuen bonbak baino indar handiagoa zuen. Hurbilagora joko dugu: 2021. urtean, Tahitira eginiko bisita baten baitan, Polinesiarekiko metropoliak duen zorra onartu zuen Macronek; frantziar Errepublikak eginiko kalteari buruz hartuko duen ardura kalteordain ekonomikoetara mugatuko dela –kasurik one nean–, jakina zenez, eta Emmanuel Macronek bere mintzaldiari egia eta gardentasunaren aldeko engaiamendu lausoa gehitu zion.

Polinesiakoa da frantziar Asanblea Nazionalean inoiz eseri den kiderik gazteena. Tematai Le Gayic du izena.

Iazko udaberrian Hexagonoan egin ziren parlamentu hauteskundeetan Polinesiak hiru diputatu hautatu zituen. Hirurak alderdi independentistako kide dira. Urte luzez jakobinismoaren ikur (izan) den ezker hexagonalaren sostengua jaso zuten hautagai independentistek.

Tāvini Huira'atira alderdiaren garaipena ospatzera bertaratu ziren Polinesiara Kaledonia Berriko independentistak. Beraien lurraldean ere memoria egiteko parada eman du Noumeako Akordioen 25. urtemugak.

FLNKS iragan otsailean egin zuen kongresuak agindu zehatza eman zuen. Ozeano Bareko lurralde horretako gobernuko kide Gilbert Tyuienonek (Kaledoniako Bata-suna) ere honela laburbildu du iragan eta etorkizunaren artean zubia eraikitze proposamena: «Fronteak Estatuarekin buruz buruko elkarrizketak nahi ditu plantan eman, gure posizioaren arabera Kaledonia Berria independentziara eraman behar duen ibilbideari buruz mintzatzeko».

Iltzaturik dira kanaken memorian 'gertakariak' izendapen eufemistikoarekin ezagutzen diren bortizkeriaz beteriko urteak. Bakeari aukera emateko 1995ean sinatu zen Noumeako Akordioari buruzko bilana aspalditik galdetu dute independentistek, horren inguruan trantsizioaren bide orri berria garatzeko.

Bortizkeria koloniala goraipatzen zuen «Orly» izena zuen plazan orain «Bakea egin duten tokia» (Koo Wè Joka) izena duen estatua altxatu dute, Noumean

Geopolitikaren gidaliburuari begirada azkarra botaz gero, Europako Batasunak gutiziatutako Asia-Ozeano Bareko taulategian duen ahulezia estrategikoaz ohartuko gara berehala. AEBen interesetara makurtzeak horrelako hutsuneak sortzen dizkie EBko aliatuei. Alta, Frantziak baditu zango bi eskualdean. Horregatik besterik ez bada, altxaturiko olatua tsunami ez bilakatzeko interes osoa du Eliseok eta, agian, behar hori leiho-aukera bilakatu dezakete independentistek. Frankismo eta trantsizio garaietako bortizkeriaren "greenwashing"-a egiten dutenentzat ulertzeko zaila bada ere, dagoeneko Noumeako "Orly plaza" zenekoan "Bakea egin duten tokia" (Koo Wè Joka) izeneko estatua altxatu dute. •

EUSKAL KULTURA IPAR AMERIKAN

NABO, mende erdiz Ipar Amerikako euskal kultura sustatzen

Ipar Amerikako euskaldunek ospakizun berezia dute egunotan. Mende erdia bete da euskal-amerikarrak biltzen dituen erakundea sortu zutenetik. Aspaldi iritsitako migratzaileak edo haien ondorengoak ziren batzuk, beste batzuek urte gutxi batzuk zeramatzaten Ameriketako Estatu Batuetan, eta jatorriz ere Euskal Herriko hainbat txokotatik zetozen. Asteburu honetan 50. urteurren hori ospatuko dute Kalifornian diasporako euskaldunek, Euskal Herritik ere beren beregi joandako lagunekin batera.

AEBetako mendebaldeko zortzi elkarte batuz sortu zen NABO Ipar Amerikako Euskal Erakundea: Kaliforniako Bakersfield eta San Frantziskoak, Idahoako Boisekoa, Oregoneko Ontariokoa, Nevadako Reno, Elko eta Elykoak eta Coloradoko Grand Junctionekoa. Azken biak desagertu egin dira, baina NABOn dauden elkarteak 42 dira gaur egun. AEBetako mendebaldekoak dira gehienak oraindik ere, baina badira elkarteak ekialdean eta AEBetatik kanpo ere, Kanadan, esaterako, eta Frantziaren mende dauden Saint Pierre eta Mikelune uharteetan ere. Gaurko ekitaldirik hunkigarrienetakoa Kalifornian arratsaldeko hirurak direla eta Euskal Herrian gauerdia deanean izango da, lehen zortzi elkarte horiei omenaldia egingo baitiete.

NABOren udaberriko bilera eta konbentzioarekin batera antolatu dituzte urteurreneko ekitaldiak, San Frantziskotik ordu pare batera dagoen Los Banos herrian. AEBetako euskal komunitateekin batera, Kalifornian izango dira Euskal Herritik joandako bertsola-

 **DIASPORA** / Urtzi URRUTIKOETXEA

Euskal Herriarekin alderatuta desberdin, modu berezi eta propioan, euskal-amerikar nortasuna eratzeke giltzarri izan den NABOk mende erdia bete du. Duela 50 urte hainbat tradizio eta jatorritako euskal elkarteak batu ziren Renon. Euskal-amerikar identitate berriari bide egin dio. Eta egunotan ospatu egingo dute Kalifornian.

riak, hizlariak eta kirolariak. Bilkuran, duela bost urte hartutako ardura utziko du Philippe Acheritogarayk eta Jean Flesher musikariari emango dio aginte makila. Era berean, 1973an Nevadako Renon egindako bilkura hartatik erakundean diharduen Pierre Etcharrereni omenaldia egingo diote. «Hasieratik ibili da NABOn, Renoko Sparks-en egindako bileran ere San Frantzisko ordezkatu zuen, eta beti aritu da

buru-belarri. Musean lan itzela egin du».


HAINBAT JATORRI

Duela mende erdi, hainbat tradizio eta jatorritako euskal elkarteak batu ziren Renon. Izan ere, Kalifornian baxenabartarrak ziren gehienak, eta bizkaitarrak, Idahoan. Nevadan, lekuaren arabera, batekoak edo bestekoak ziren gehienak, eta geografikoki ere Boise eta San Frantziskoren erdibidean ego-

nik, huraxe hautatu zuten biltoki (Unibertsitatean ere abian zen ordurako Euskal Ikasketen programa). XX. mendearen lehen erdian artzain joandako gurasoen seme-alaba estatu-batuarrak ziren batzuk, gainera; beste batzuk, berriz, eurak ziren migratzaile joandakoak, 60ko hamarkadan bertan. Migrazioa amaitua zen nagusiki, eta behinolako ‘boardinghouse’ ostatuak lekuan lekuko komunitateen topaleku bihurtu ziren. Baina hortik topaleku horiek guztiak koordinatu eta elkarte komun bat sortzera, jauzi handia zegoen.

«Hogeita hamar lagun inguru elkartu ginen. Ni San Frantziskotik idazkari joan nintzen. Batzuk alde ziren, beste batzuk ez, badakizu euskalduna nolakoa den: bost euskaldun eta hamar iritzi. Bizpahiru hilen buruan berriz elkartzekotan geratu ginen, eta hor ez ginen dozena bat

Jon Oñatibia eta Joseph Manuel Barainca NABOren lehenengo Musika Kanpamenduan, Boisen, 1974an. Joseph Manuel Elyko Nevada Basque Clubeko ordezkaria zen.
ARDINA BARAINCA AREITIO COLLECTION



baino askoz gehiago», gogoraz digu Pierre Etcharrenek. Uharte-Garazin sortua, hamaazpi urterekin iritsi zen San Frantziskora, eta hastapenetik dihardu NABOn. Garai hartako errezelo nagusietako bat Euskal Herriko giro politikoak sortzen zuen: «Guk euskaldun kultura maite genuen, ez genuen politikan sartu nahi». Hala, kultura hitza azpimarratu zuten estatutuetan, auzi politikoetatik aparte zeudela nabarmentzeko.

Errezeloa ez zegoen AEBetan bakarrik. Frankismo amaierako Euskal Herri hartara etorri zen John Bieterrek honela gogoraz digu Boiseko talde batek Oñatin egindako egonal dia: «Zurrumurrua zegoen programa guztia ez ote zen CIAren ezkutuko zerbait. Aste-bete lehenago leherketa txiki bat izan zen gu egongo ginen egoitzaren ondoan, txikia, baina bonba bat, finean. Orduko hartan, ez nintzen ohartzen askorik. Baina pentsa, bestalde, herrikoei zein irudi eman-go genien: Bilbotik ekarri gintuen autobusak, aurrean eta atzean, Guardia Zibilaren eskolta zeraman herrira sartu zenean». Ikurrina debekatuta zegoen Hego Euskal Herria zen. NABO erakundeak, kultura azpimarratuta eta eztabaida politikotik aparte ere, ikurrina erabili du bere ekitaldi guztietan.

Iaz hil zen Al Erquiaga, NABOko lehen presidentea izana. Hasiera hartan elkarteek elkarren berri izatera mugatuko zirela uste zuten, baina korrespondentziatik askoz haratago doan zerbait bihurtu zen euskal elkartearen federazioa. Nork bere herrian eta elkartearen egiten zuenarekin, lantaldeak eratu zituzten: dantza izan da akuilu nagusietakoa diaspora-



Dantza taldeak, NABOren biltzarrean, San Frantziskon, 1979ko abuztuan.
Phillip eta Delores MENDIGUREN

ko euskaldunen artean. Dantza taldeak, dantza emanaldiak, picnic eta jaialdietako ekimen garrantzitsuenetakoak izan ziren 60ko hamarkadatik; elkar-ezagutzarako bideetako bat. «Klika, dantza, pilota... Horiakin hasi ginen San Frantziskon 1963an; beste anitz klub ere sortu ziren, eta horiek ikustera joaten ginen Los Banosera, Bakersfieldera, eta gero Nevadarara ere bai, Renora, Elkora, Winnemucara...», dio Etcharrenek.

Elkarteek elkarren berri izateko hasiera hartako helburutik baino askoz haratago doan zerbait bihurtu zen azkenean euskal elkartearen federazioa

Dantza taldeak, dantza emanaldiak, picnic eta jaialdietako ekimen garrantzitsuenetakoak izan ziren 60ko hamarkadatik: elkar-ezagutzarako bideetako bat

UDALEKUREN GARRANTZIA

1973tik aurrera, NABOren ideia zabaldu zuten euskaldunen ekitaldietan. «70eko hamarkadako buruzagitzak, Boiseko Al Erquiagak eta San Frantzisko-ko Jacques Unhassobiscayk, lan handia egin zuten, picnic guztietan NABOren ideia zabaltzeko». Jauzi garrantzitsua «1979an iritsi zen, eta Pierrek eragin zuen», gogoraz digu Acheritogarayk: «Ordura arte bilkurak izan ohi ziren, eta berak hainbat lekutako dantza-taldeak elkartu zituen San Frantziskon. Dantza, kirola, bertsolaritza saioak... izan ziren eta talde ugari elkartu ziren». Ordurako NABOn sartzen ari ziren elkarte gehiagok egin zuten urratsa, erakundeak berak bultzatutako ekimenei esker: pilota eta mus txapelketak, eta gazteentzako Music Camp topaketa, gerora 'Udaleku' izena hartu zuena.

NABOn edozein ardura izandako guztiak bat datoz esaterakoan urteotan egindako

programa eta ekimen guztietan Udaleku dela arrakastatsuen. Baita erakundea egun inoiz baino biziago egotearen arrazoia ere: diasporako herrialde askotan belaunaldi batetik sortzen du elkarte, baina haien seme-alaba edo bilobek ez dute gurasoen interes berbera, integratu ahala. Baina Udalekuk diasporaren kontzientzia irauli eta guztiz eraberritu du. «Hasieran musika eta dantza ikasteko topaketa bezala planteatu zen; bi astetan hiru lekutan egiten zuten, ume bakoitzaren bizilekuaren arabera», dio Valerie Arretchea Udalekuko arduradunak. Antolakuntza zailegia zen, ordea, eta bi asteko topaketa bakarra egitea hobetsi zuten, elkarte batek antolatuta eta kideen etxeak baliatuta, eta urtez urte aldatuz lekua. «Musika eta dantza topaketa zena beste neska-mutil batzuk ezagutzeko bide bihurtu zen. Halako batean, euskal komunitate guztietan genituen lagunak.



Anita Jausoro, Linda Lamardi, Anita Anacabe Francoia, Marie Jausoro eta Joann Mainvil txistulariak, Boisen.
Anita ANACABE FRANZOIA

Ordurako, beraz, ez zen gurasoei picnic-etara laguntzea haien lagunekin egon zitezen; geuk ere bagenituen adiskideak eta haiek bisitatu nahi genituen. Ekimen gutxitan ikusiko duzu hain adin desberdinetako jendea elkarrekin ospakizunean». Horri esker, «euskal kulturari eusteko bultzada handia izan zen. Txistu, kantu eta dantzarekin batera, musa ere sartu zen; umeeu ere sartu zuten, elkarri irakatsi baitzioten».

Euskal Herrian ere elkarrengandik urrun egon ohi diren euskaldunak, bizkaitarrak baitetik eta baxenabartar edo zuherotarrak bestetik –baita Nafarroa Garaikoak ere–, elkarte bereko kide ziren, eta bide horretatik, NABO haziz joan zen 80ko hamarkadan. Mendebaldean zentratuta betiere, han baitaude diasporako euskal komunitate gehienak; New Yorkeko Euzko Etxea, Ameriketako Estatu Batuetan sortutako lehenengoa izan bazen ere, 1993an sartu zen NABOn.

Ordurako mendebaldeko estatuetan euskaldunen picnic-en zirkuitua indartsu zegoen, eta gero eta hobeto ezagutzen zuten elkar. Boisen ere bost urterik behin antolatzen duten Jaialdiari ekin zioten 1987an. Eta proiektu baten inguruan elkar ezagutu zuten diasporako helduekin alderatuta, haien seme-alabek gaztetxotatik elkarrekin partekatu zuten Udaleku programa; euskal-amerikar identitate berriari bide egin dio-eta, «NABOren programa esanguratsuena da», dio Philippe Acheritogarayk. «William Douglasssek progra-

Udaleku izan da erakundea egun inoiz baino biziago egotearen arrazoia. Diasporaren kontzientzia irauli eta guztiz eraberritu du. Urteotan egindako ekimen arrakastatsuena da

«Ohartu ginen ez zegoela euskalduna izateko era bakar bat, ezin zeniola inori esan ez zela 'basque' dantza edo txistua gustuko ez zuelako edo ez zelako euskara ikasteko gai»

ma horri 'NABO efektua' esaten dio: euskal komunitateak elkartu ditu, euskal-amerikar gisa. Euskal Herriarekiko ondarea hor dago, noski, baina ez elkarren arteko bereizgarri gisa». Horren guztiaren ondorioz, «gaur egungo euskal etxeetako zuzendaritzetan ikusten dituzunetako asko eta asko Udalekutik pasatu diren adiskideak dira, eta horrek, noski, oso lotura estuak sortzen ditu».

90eko hamarkadan hartu zuen Udalekuk egungo forma-tua. «Programa arrakastatsua zen, bagenekien gauza garrantzitsu bat lortu genuela, baina ohartu ginen ez zegoela euskalduna izateko era bakar bat, ezin zeniola inori esan ez zela 'basque' dantza edo txistua gustuko ez zuelako edo ez zelako euskara ikasteko gai». Hala, egitura aldatu zuten, «ugaritu egin genuen programa, euskal kulturaren ikuspegi zabalagoa irakasteko, derrigorrean zati batekin edo bestearekin identifikatzeko beharrik gabe».

NOLA EUTSI EUSKARARI

Euskal kultura berritu eta identitate berri eta bizi batera egokitu da AEBetan. Hizkuntzari eustea, alabaina, ez da hain erraza 330 milioi laguneko herrialde batean, non munduko hizkuntzarik indartsuena mintzatzen den. 90eko hamarkadaren amaierarako Martin Goicoechea jabetu zen emigrazioan joandako azkenetakoa zela, eta bazeramatzan 30 urte AEBetan. «Ohartu nintzen jende gehiago ez zela heldu Euskal Herritik, eta hori zaindu ezean euskara galdu egingo zela». 1998an zabaldu zuten Boiseko ikastola, eta Goicoechearen gidaritzapean, Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena egin zuten, euskarazko eskolekin hasteko. 21 urtez Euskara arduradun izan ostean, duela bi urte Boiseko Ziortza Gandariasi eman zion lekukoa.

«80-100 ikasle inguru ditugu Ameriketako Estatu Batuetan, zortzi eskola eskaintza daude, eta denetik dago: euskaraz zerbait gogoratzen duten euskal jatorrikoak, euskal arbasorik ez baina interesa daukatenak, erretiroa hartu eta hizkuntza ikasteari ekin diotenak...», dio Eurne Arostegui Euskara koordinatzaileak. Sarritan, elkar ezagutzen dute ikasleek: «Gertatu izan da batek gazteago bati esatea: 'Hara, zure amona ezagutzen nuen!'». Oro har, A1 eta A2 maila apalak izaten dituzte, betiere Etxepare Institutuak ezarritakoaren arabera. Badira, halaber, Euskal Herria bisitatzekotan direnak eta joan aurretik euskara pixka bat ikasi nahi dutenak.

NABOk presidente berria Utah-ko Euskal Etxeko kidea da: «Lehen bazen euskal ostaltua, hura itxi egin zen eta or-

**Hizkuntzari eustea, alabaina, ez da hain erraza
330 milioi laguneko herrialde batean, non
munduko hizkuntzarik indartsuena
mintzatzen den**

duan sortu zituzten elkarteak eta Triskalariak dantza-taldea. Kluba txikia baina ederra eta animatua da». Amerikanuak taldeko sortzaile eta musikari autodidakta da Jean Flesher: «16 urterekin sartu nintzen elkartean. Dantza taldeak magnetofonoz praktikatu ohi zuen, ez zen musikaririk. Akordeoia ikastea pentsatu nuen, hortik talde txiki bat sortu, beste euskaldun batekin, gero handitu eta duela 7-8 urte Amerikanuak sortu genuen». Ama baxenabartarraren hizkera eraberezian darabil, Salt Lake City inguruan dagoen bizkaitar komunitatearen zipriztinekin, hain zuzen ere.

Helburu ugari ditu Flesherrek aurrera begira: «Bertsolaritza bultzatzeko programa ederra jarri dugu abian. Beti izan da bertsolaritza Ipar Amerikan, baina zahartuak

dira eta gazterik ez zetorrenen; programa hau sortu da eta espero dut handituko dela. Badugu beste programa bat Euskal Herriko dantza irakasleak etor daitezten. Eta espero dut AEBetako ekialdeko taldeek ere gehiago parte hartzea, eta han ere bilera gehiago egitea, lehen Montrealen eta berriki Connecticuten egin den bezala; harremanak estutzea, alegia». Atlantan, Texasen eta Mexiko Berrian diren euskal taldeen berri ere izateko asmoa du Flesherrek.

Presidentetza utzi berri duen Philippe Acheritogaray, bestalde, pozik dago egindako lanaz, eta bi ekimen nabarmendu ditu: pilota batzordearen ardura hartzeko eskatua San Frantziskoko Tony Huarteri, eta indartsu heldu dio lanari. Bertsolaritza tal-

Bertsolaritza taldeari ekin berri dio, halaber, NABOk. «Beti izan da garrantzitsua, baina ez zetorren erreleborik eta bertsolariak ere adinean gora goaz»


deari ekin berri dio, halaber, NABOk. «Bertsolaritza beti izan da garrantzitsua Ipar Amerikako diasporan, baina ez zetorren erreleborik eta bertsolariak ere adinean gora goaz», dio Martin Goicoecheak. Iaz egin zuten pandemiagatik bertan behera utzi behar izan zuten AEBetako bertsolarien omenezko ekitaldia. Era berean, Goicoechearen bidez Todor Azurtzak hartu du bertsolaritza batzordea berrietzeko ardura. «Bertsolaritzari Arnasa Berritu Amerikan' ekimena martxan jarri dugu, bertsolaritza sustatu eta iraunarazteko. Bertso eskola sortu

dugu (online elkartzen gara astero) eta aldiro bertso saioak antolatzen ditugu. Bertsolaritzari bultzada emateaz gain, gizarte honetan euskarari esparru bat eskaintzen ari gaizakizkiola esango nuke, gure bertsoetan behintzat AEBetan euskara bizi da eta».

Euskal Herriarekin alderatuta desberdin, modu berezi eta propioan, euskal-amerikar nortasuna eratzeko giltzarri izan den NABOk mende erdia bete du. Eta sortu zutenen seme-alabek eta bilobek inoiz baino indar handiagoz dihardute AEBetan euskal kultura sustatzen.

Artzain txakurren erakustaldia, San Frantziskoko, 1979ko abuztuaren.

Phillip eta Delores MENDIGUREN



EL DORADOKO DRAGOIAK

Urrearen ustiaketak tentsioa areagotu du Kolonbiako ipar-mendebaldean

Kolonbiako ipar-mendebaldean, gobernuak borroka bizian ari da urrea ateratzeko erabiltzen diren dragen aurka. ‘Dragoi’ esaten diete ibai bazterretan pilatzen diren urrea ateratzeko burdinazko ontziei. Agintarien arabera, ingurumena kutsatzen dute eta antolatutako krimenak finantzaketa lortzeko erabiltzen ditu.

Dragen aurka egiteko militarrek bidaltzen dituzte, eta toki-komunitateek etsaitzat dauzkate. El Bagre eskualdea, Bajo Cauca, urreduna izan da historikoki eta askok errearen ustiapen informalari esker bizirik irautea dute bertan. Meatzariek greba orokorra hasi zuten martxoaren hasieran eta haren baitan ekintza bandaliko ugari burutu dituzte, narkoen babesaz, gobernuaren ustez.

INGURUMENA / GAUR8

«Dragoi» esaten diete Kolonbiako ipar mendebaldean ibai hondoetatik urrea ateratzeko erabiltzen dituzten makinei. Golkoko Klanaren oinordekoek loturak dauzkate negozioarekin, gobernuak haren aurka egiten du eta bertako biztanleek bizirik irauteko aukera gisa defendatzen dute. Kolonbiako estatuak historikoki ahaztutako eskualdea da El Bagre.

«Ez dugu zerikusirik talde kriminalekin. Bertako meatzari xumeak gara, arazorik sortzen ez dutenak», baieztatu du Luis Manuel Campok.

NORK BERE «ZORIA»

32 urte ditu Campok eta draga baten jabea da, beste hiru kidearekin batera. «Ez gara ezkutatzen. Jazarpena gelditzea besterik ez dugu nahi, gure egoera formalizatu nahi dugu,

lasai lan egin ahal izateko, estigmatik gabe», azaldu du.

Zaragoza, Caceres... hirien izenek gogora dakarte kolonizatzaile espainiarrek ere urrea ustiatzen zutela XVII. mendean Bajo Cauca, izen bereko ibaiaren eta haren ibaiadarren ibilguari jarraituz. 1990eko hamarkadan paramilitarren bastioi izandako eskualdea Golkoko Klanaren oinordekoen gotorlekua da egun. Herrialde-

ko kartelik boteretsuena da, eta Gustavo Petro presidentek bake negoziazioak hautsi berri ditu haiekin eta horrenbeste irabazi ematen dizkien errearen negozio opakuan duten parte hartzea salatu du.

Izan ere, prezioen eta dolarren gorakadarekin batera, errearen beste sukarraldi bat dago Bajo Cauca: egunero, beharra dutenek, pala hartuta, legar artean bilatzen dute bizirik irauteko modua, induskatzeko eta dragatzeko makinen artean.

«Hemen urrea besterik ez dago», azaldu du Campok. «Bizitzeko, besoekin edo daukazu diru apurrarekin konpondu beharra daukazu. Inbertitu, zulatu... Urrea zori kontua da!», laburbildu du. El Bagren «urrea edozein hondartzatan aurki dezakegu».

350 draga inguru daude eskualdean. Motordun flotagailu soilenetatik hasi eta bost metro luzeko dragetara doaz erabiltzen diren gailuak. Ur ilunen azpian xurgagailu hodia gidatzen duten hainbat urpekari aritzen dira bigarren horrekin. Eta, azkenik, dragarik handienak, ‘brasildarrak’ edo ‘dragoiak’ deitzen dituztenak, egungo krisiaren protagonistak, hain zuzen ere. 27 ‘brasildar’ dabiltza Nechi ibaian legez kanpo lanean, sektore informalean diharduten meatzarien ordezkarien arabera.

Mineros Aluvial Kolonbiako multinazionalak baino ez dauka baimena urrea legez ustiatzeko; 50.000 hektareako eremua ustiatzeko baimena duten bakarrak dira.

‘Brasildar’ bat «hiru solairuko ontzia da, 20 metroko luzeera du, motor handiak ditu eta erreken hondoak zurrupatzen ditu», azaldu du Eduardo Arias jeneralak. Brasilgo Ama-



zonian antzekoak erabiltzen dituzte eta horregatik jarri diete ezizena. Dirudienez, 2005ean bi brasildarrek inportatu zuten teknologia.

KAKALARDO ERRALDOIAK

«Armadako helikopteroak egunero dabiltza hemen, beldur gara», dio Alex Cossiok, “Native” ontziaren kapitainak. 2022an eraiki zuten ‘brasildar’ hori, duela hilabete batzuk jarri zuten martxan, eta orain Nechi ibaiaren adar batean geldirik daukate.

Lehen solairuan makina-gela dago; goikoan sedimentuak jasotzen dituzte iragazki erraldoi batean, eta hondoan, hala moduzko logelak eta jangelak dauzkate. Hodi luzeek metalizko kakalardo erraldoi baten itxura ematen diote.

Brikolajea, mekanika eta birziklatzea zinez trebeak dira makinak eta ia 24 orduz aritzen dira lanean. Tripulazioa gehienez ere 20 pertsonak osatzen dute, eta proportzionalki ordaintzen da.

‘Brasildar’ bat erabiltzeko inbertsioa 500.000 dolar ingurukoa da. «Gaur egungo prezioekin, errentagarria da», azaldu du Cossiok, betiere egunean 80 edo 100 gramo urre baino gehiago bilduz gero. Poliziaren arabera, ‘brasildar’ batek egunean 2 kilo urre aurki ditzake, 50.000 dolar baino gehiago balio dutenak.

«Gasolioa, janaria, logistika... Auzoan erosten dugu dena; asko bizi dira gure jarduerari esker», azpimarratu du Cossio kapitainak. Bere draga «famiaren ondarea» dela dio, eta ez daukala inolako loturarik krimen antolatuekin.

Gutxienez sei ‘brasildar’ ontziri sua eman diete Nechin.



Ezkerreko orrialdean, «dragoi» deitzen dieten dragetako bat. Lerro hauen gainean, meatzari ez formalak urre bila Nechi ibaian, El Bagren. Raul ARBOLEDA | AFP

Batzuk zaharberitzen ari dira, hala nola, Nueva Esperanza. Ur bazterrean dagoen herrixka txiroa da eta martxoaren 10ean bata bestearen aldamean amarratuta zeuden hiru draga-ontziri eraso egin zien Kolonbiako armadak bertan. «Haiek geldiarazten saiatu ginen, izugarria izan zen», gogoan du oraindik ere Julia Tatisek, herriko jatetxe txiki baten jabeak.

«HARRAPAKIN ERRAZAK»?

Erasoa pairatu zuten hiru ontziek zutik diraute oraindik ere. Kaltetutako dragak konpontzeko lanetan dihardute mekanikariek, lehenbailehen

lanari berriz ere ekin diezaiozten. «Militarrak Golkoko klanekoak ginela esanez lehorretatu ziren eta dena erre zuten», dio Juan Manuel Carcamo nagusiak. «Berrantolatu egin gara, zer gertatuko den ez dakigun arren», azaldu du. Konpontze lanetan ari den mekanikarietako batek adierazi du aurrean daukan draga hirugarrenez erre dutela dagoeneko.

«Urrearena abentura bat da baina behar bezala egin daiteke, formalki», langilearen arabera. Sinetsita dago horretaz eta basoberritze lanetan laguntzeko prestutasuna ere agertu du. «Jakina, dragek

Mineros Aluvial Kolonbiako multinazionalak baino ez dauka baimena eskualdean urrea legez ustiatzeko; 50.000 hektareako eremua ustiatzeko baimena duten bakarrak dira

«Hemen urrea besterik ez dago», azaldu du Luis Manuel Campok, draga baten jabeak. «Bizitzeko, besoekin edo daukazun diru apurrarekin konpondu beharra daukazu»

eragina dute. Baina, Mineros Aluvial enpresak 40 urtez ustiatu dituen lurrak lantzen ari gara, besterik ez», azaldu du Campok. «Kaltea egina dago dagoeneko. Beraz, non dago arazoa?», galdetu dio bere buruari.

Golkoko Klanaren indarrari dagokionez, «ez da sekretua, inondik inora ere, herrialde honetan legez kanpoko taldeek negozio guztietan eskua sartuta daukatela...», aitortu du Cossio kapitainak. Baina, «gezurra da dragak klanarenak direla esatea», azaldu du Francisco Arrieta Francok, abokatu eta adin txikikoen kausaren defendatzaileak, azken horiek «biktima» gisa ikusten baititu. «Zaila eta garestia da draga batekin zuzenean aritzea. Delitugileek interes handiagoa dute eskualde honetan nonahi ematen den estortsioan».


«Estatuak betidanik abandonatu izan dituen lurraldeak dira hauek, eta ondorioz, dragak, beste ezer baino lehen, harrapakin erraza dira Golkoko Klanarentzat», azaldu du Eder Narvaezek. Kazetaria da Narvaez eta irtenbidea sektorea formal bilakatzea dela us-te du. Baina estortsioak jarraitu egingo du nola edo hala; aipatutako iturri guztiak bat datoz iragarpen horrekin.

Urrea erosteko erabiltzen dituzten salmahaietako batean, «Gobernuak meatzariak jazartzen jarraitzen badu» indarkeria besterik ekarriko ez duela ohartarazi dute. «Dragak behar ditugu lan egiteko eta jateko. Komunitate osoa mantentzen dute!», bota du langile batek. «Sabela hutsik daukazunean, legez kanpoko gauzak egin behar izaten dituzu...», egin du mehatxu ahapeka dotezale batek.



Ula IRURETAGOIENA BUSTURIA - @ulissima5
Arkitektoa

Interneten materialtasuna



Ilustrazioa: ULA IRURETAGOIENA BUSTURIA

Honako ideia hau oro-kortua dugu: Internet hodeia immateriala eta ez-kaltegarria da, bizitza arindu eta aukerak ematen dizkiguna. Ez dugu datuen aztarna ekologikoaren inguruko ezagutzarik ezta informaziorik ere. Baina Internet hodeiak badu B aurpegi fisikoa eta mundu materialean eragin handikoa da, giza aktibitate oro bezala. Eta ondorio materialetan arreta jarri beharko dugu, baldin eta etorkizunak digitalizazioaren bidetik joko badu –eta susmo guztiek garamatzate bide horren baieztapenera–. Aurrerapen teknologikoen baliabideen erauzpena eta ingurumen kalteak sortzen jarraituko dute, beraz, orain arte bezala. Digitalizazioak lurraldean eta gorputzetan ekartzen dituen eraginak mahaigaineratzeko

beharra dago, hartzen dugun bidearen ondorioen jabekuntza izateko siera.

Neurketen arabera, byte datu bakoitzak ingurumen ondorio bat du. Diotenez, elektronika digitalak, Internet eta errealtate digitala sustengatzen duten azpiegiturek, munduko isurketen %2,7 suposatzen dute egun, baina datua handitzea espero da proiektzio guztien arabera, bikoiztera iritsi arte gutxienez. Selfie bat argitaratzean, email bat bidaltzean, bideojokoetan jolastean edo pantailatik pantailara bidaiatzean, CO2 isurtzen ari gara. Internetek aztarna ekologikoa du, bere materialtasuna ikusaraziz.

Lurraldean, eremu materialean, datu-biltegien zerbitzariak gordetzeko eraikin-zentroak sortzen ditu, eta zuntz optikako kableak, eta zeharo kutsakorrak diren bateriak, eta litio

eta bestelako mineralen ustiapena eta fabrika ugari –kontsumo zabala duten elektronika gailuen ekoizpenerako– eta bizitza laburra duten gailuen hondakin elektronikorako hilerriak, lur okupazio handiak hartzen dituztenak.

Lurralde eta hiri sistemen iraupen garaikiderako beharrezkoak diren instalazio guztiekin bezala, black box-ak egiten ditugu azpiegiturekin, hodiekin eta kableekin; gehienetan azpiegitura opakoak izaten dira beren eginkizun eta ingurumen inpaktuetan, eta ahal dela eguneroko ibilbideetako bistatik aldentuta kokatzen ditugu, eta posible izanez gero, deslokalizaturik eta urruti, sortu behar duten suntsipena beste leku azpiratu batean izan dadin. Ez da gauza berria.

«Eskuartearen ditugun gailu teknologikoen txipak gero eta mikroagoak eta lirainagoak egiten diren bitartearen, teknologia horren elikadura diren datu-zentroen biltegiak –datuen azpiegiturak– gero eta makroagoak eta zatarragoak egiten ari dira», dio Marina Oterok, gai honetan aditua den arkitektoa. Arkitektura bunkerak ia-ia. Metabertsoa, txat GPT, Inteligentzia Artifiziala eta Internet sarea errealtate egiteko, elektrizitatea, ura eta espazioa behar dira (eta langile asko sistema egokitzeko, noski), eta antza, kantitate eta azalera handietan behar dira eraikin gordailuak kokatu eta elikatzeke. Gainera, datu-biltegi diren azpiegiturak bero sortzaile foku handiak dira. Hau da, azpiegitura digitalen sostengua ingurumen-krisiak identifikatu dituen elementu kritiko guztien pean da, eta horra hor, Interneten immaterialtasunaren ahuldadea: materialtasuna. •

{ asteari zeharka begira } Pello OTXANDIANO

Euste-hormak eta zutoinak

Egoera politiko eta sozialak errotik eraldatu nahi dituenak egoera horiek mantentzeko interesak dituztenek jarriko dizkionten oztopoak topatuko ditu etengabe. Hau esatea ez da gauza handia, jakina da bizitzan eskarmentu txikiena duenarentzat. Botere-harremanek osatzen dute edozein gizatalde, politika botere-harremanen kudeaketa da, eta botere-harremanak aldatu nahi dituenak korrontearen kontra egin beharko du. Eta gauzak aldatzeko gero eta aukera gehiago izan, bere ideiak zentzu komunitik gero eta gertuago egon, orduan eta indartsuagoa izango da kontrako oldarraldia.

Ezker independentistak proiektu eraldatzaile bat ordezkatzeko du. Euskal Herriaren burujabetzaren aldarria inpuñazio erradikala da, ez soilik Espainiaren nazio izaera inperialari, baita elite estraktibisten interesei ere. Eta zaintzak, eraldaketa ekosoziala, zerbitzu publikoak, lurraldean errotutako ehun produktiboa edo euskararen eta euskal kulturaren garapena erdigunean jartzen dituenak gauza asko inpuñatzen ditu.

Korrontearen kontra ari denak, gutxienik, hiru zutoin behar ditu bere burua ondo oinarritzeko. Lehena, epe ertain-luzeko estrategia bat, eta horrekiko konfiantza sendoa. Emaiz batzuk ez baitira epe laburrean ikusiko. Horixe izan zen, irlandarren esperientzian oinarrituz, Declan Kearney Sinn Feineko presidenteak Aberri Egunean utzi zigun mezu nagusia. Argi luzeak, epe luzeko begirada, pazientzia estrategikoa: turbulenzia handiko garaian ezinbestekoa.

Bigarrena, pasioa: pazientzia estrategikoa ez dezan tentsio galerarik ekarri. Momentu bakoitzean zirrikituak, abaguneak, tira egiteko hariak bilatzeko ezinegon bat. Aukerak espero ez direnean sortzen baitira gehientsuenetan, hondoko korrontek badirauelako eta inoiz ez baitago jakiterik noiz eta non urratuko duen lurrazala. Ekin egin behar da. Aukera-leihoek ekin harrapatu behar gaituzte, ernai, abaguneak probesteko erreflexuekin.

Eta hirugarrenik, mundualdia bizitzeko filosofia bat. Aldaketak zailak baitira, proiektu kolektiboak konple-

xuak, eta garaia, nahasia. Ni, horri dagokionez, Pepe Mujicak limurtzen nau. Gure ekimen politikoaren funtsa, mugitzen gaituena, bidean jarraitzera bultzatzen gaituena eta agenda erreakzionarioari aurre egiteko indarra ematen diguna nolabait azaldu beharko banu, honela laburbilduko nuke: parean tokatzen zaigun aukera bakoitza baliatzen saiatzea etorkizun hobe, herri hobe, eraikitzeke.

Eta, era batera edo bestera, egunero agertzen dira gauzak hobetzeko aukerak, norberak bere burua hobetu eta horrela jendearen bizitzak hobetzeko bideak. Pepe Mujicak dioen bezala, geure buruaren epaile izatea da kontua. Egunero, oheratzen garenean, balantze bat egin: ondo egin dugun, erdizka egin dugun edo gaizki egin dugun. Ez dugu inoiz mundu hoberik izango geure burua hobetzeko borrokatzen ez badugu. *Y lo imposible cuesta un poco más.*

Pepe Mujicaren beste ikasgai bat: gorrotorik ez erein, naturak aurrealdean jarri zizkigun begiak eta asko dago egiteko. Iraganetik ikasi behar da aurrean dau-

Zutoin sendoak badauzkagu, beti sortuko da aukerarik etorkizun hobe bat eta herri hobe bat sortzeko imintzio txikietarako. Eta nago baietz, zutoinak sendoak direla

den oztopoak gainditzeko, bai, baina ezin dugu ontzat eman herri hau etorkizunik gabeko iraganera kondentzea, ez. Eta eraldaketari muga jarri nahi diotenek iragan beltzera kondenatu nahi dute herri hau. Euste-hormak altxatuko dituzte bata bestearen atzean. Batzuetan indarrak bildu beharko ditugu hormak eraisten saiatzeko, beste batzuetan hormatzarrei iskin egin beharko diegu, saihasbideak hartuz; eta beste batzuetan hormak adreiluz adreilu deseraikitzea tokatuko zaigu, nahiz eta lan nekeza izan.

Baina, orduan ere, zutoinak sendo badauzkagu, beti sortuko da aukerarik etorkizun hobe bat eta herri hobe bat sortzeko imintzio txikietarako. Eta nago baietz, zutoinak sendoak direla. •

PREST ETA PRESTATUTA

Gazteek, hauteskundeetan ahotsa izateaz gain, boterea eskuratu nahi dute

Hauteskun-
deen tes-
tuinguruan
askok hitz
egiten dute
gazteez,

etorkizunaz eta «utziko diegun» herriaz. Beste askok galdetzen dute gazteak non dauden, eta ez dutela ezer egiten esatera ere ausartzen dira zenbait. Kanpainak abiatuta, alderdi politikoak hasten dira gazteez hitz egiten, gazteak «erakartzeko» neurrien inguruan hitz egiten, edota zimurren aurkako kremak aurpegiaren eman eta ustezko outfit modernoak erosten. Baina zer uste dute gazteek? Zer iruditzen zaizkie hauteskundeak eta hauteskunde kanpainak? Nola bizi dute garai hau gazte hautagaiak? Zer dela eta egin instituzioetan ardurak hartzeko pausoa? Gazteei hitz egin beharrean, gazteek hitza hartuko dutela aldarrikatu dute hautagai gisa beren burua aurkeztu duten gure bi protagonistek. Eta hauteskunde ziklo honi, begi zein begirada ezberdinetatik begiratzen dieten lau gazteren ahotsak ere bildu ditugu. Norberak bere asmo eta erronkak ditu, baina guztiek nahi dituzte bizitza duina goak eta herri hobe bat.

Eneritz Zabalaren (1995, Bilbo) ustez, gazteengan badago «ilusioa» politikagintzan parte hartzeko. Politika instituzioez haratago ulertu behar dela egiten du aldarri, eta aldi berean, Bizkaiko Batzar Nagusietan hautagai izateko aurkeztu du bere burua; bere ustez, badago instituzioekiko «interesa». Ander Loyolaren (1997, Zizur Nagusia) kasuan, bestalde, Zizur Nagusiko Alkatetzarako aurkeztu du bere burua, eta gazteez eta haien parte hartze politikoaz galdetuta, «edonon

 **POLITIKA** / Iraitz MATEO, Nerea LAUZIRIKA, Alaia SIERRA

Eneritz Zabala eta Ander Loyola EH Bilduko hautagaiak dira hauteskundeotan. Bizkaiko Batzar Nagusietarako bata, eta Zizur Nagusiko Udalerako, bestea. Ilusioz eta konpromisoz heldu diote erronkari; beraien ustez, gazteak aktibo dabilta politikagintzan, eta instituzioak beste borroka eremu bat direla uste dute.

aurkitzen ditugu gazteak politikan parte hartzen» erantzun du.

POLITIKA ETA GAZTEAK

Mesfidati eta kritiko agertzen dira biak ala biak hauteskunde bultan gazteei eta politikagintzan haiek duten parte hartzeari buruz hitz egiten denaren inguruan. Politika poli-

tika instituzionala baino askoz ere zabalagoa dela uste dute. «Horrelako momentuetan politikaz hitz egiten denean, iruditzen zait oso espazio gutxi uzten diegula politika egiteko bestelako moduei, baita prozesuei ere», dio Loyolak. Bere ustez, gazteak askotariko eremuetan dabilta lanean, eta kaleak, gaztetxeak, ikaste-

Eneritz Zabala gazte bilbotarra, Bizkaiko Batzar Nagusietarako EH Bilduko hautagaietako bat. Oskar MATXIN | FOKU



txeak, lantokiak, elkarteak edo edozein herri eta auzo aipatu ditu, adibidez.

Zabalak, politika «instituzioetan egiten den lanarekin, baina baita beste erabaki eta militantzia esparru batzuetako lanarekin» ere lotzen du. Berak instituzioan ardura bat betetzeko erabakia hartu badu ere, ulertzen du gazte guztiak horretarako prest ez egotea, baina nabarmendu du, ziurrenik, gazte horiek beste mugimendu batzuetan ari direla: «Ikusiko ditugu Amalurraren aldeko defentsan, hizkuntzaren defentsan, mugimendu feministan, jai eremuen antolakuntzan... Gazteak aktibatuta daude bizitza guztiak hobetzeko norabideratze lan horretan».

Beraz, politika hamaika eremutatik egiten dela diote, instituzioak «boterea eskuratzeko beste eremu bat» bezala ikusten dituzte; beraien eguneroko militantziarekin batera, beste esparru bat dira haientzat erakundeak. Hauxe dio, konbentzitutak, nafarrak: «Gauzak aldatzera gatoz, eta horretarako erabakigune guztietan egon behar da; lan egin nahi dugu gizarte eraldaketak emateko, baita instituzioetatik ere».

DEMOKRAZIA ETA EGUNGO GIZARTEA

Loyolak uste du hain zabalduta dagoen paradigma neoliberalen ondorioa dela instituzioekiko desatxikimendua; dioenez, hamarkada luzeetako politika neoliberalak demokrazia pribatizatzen ari dira eta hori gizartean sumatzen da. Honako hau «demokraziaren krisiaren garaia» dela dio. Eta hain zuzen ere horregatik, ez du uste demokrazian erabat ez sinestea gazteen ikuspegia bakarrik denik, sentipen askoz

ere zabalagoa dela iruditzen zaio. Zabalak, bere inguruari erreparatuta, instituzioekiko interesa dagoela adierazi du, eta desatxikimendu orokor bat dagoela jakin arren, berak ere ez du uste gazteak daudenik sentimendu horren erdigunean, nahiz eta sarritan gazteak bakarrik seinalatzen diren.

Gazteen Euskal Behatokiak “Gazteen argazkiak 2022” izenarekin argitaratu zuen azken ikerketaren datuen arabera, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan inkestatutako gazteen %70 ez da alderdi politiko batetik «oso hurbil» sentitzen, eta %11k soilik sentitzen ditu alderdi politikoak «oso hurbil». Hautagaien ustez, iritzi oso ezberdinak egon daitezke alderdi eta norberak gertuen bizi duen instituzioaren arabera. Hala ere, orokortzea akatsa litzatekeela uste dute, beraien inguruan, modu batean edo bestean, zuzenean edo zeharka, instituzioetan parte hartzen duten eta alderdi politikoren bat gertu sentitzen dituzten gazteak daudelako. Ikerketak jasotzen duenez, inkestatuen ideietatik hurbilen dagoen alderdia EH Bildu da; %26,7ren kasuan, hain zuzen ere. Eta jarraian, EAJ eta Podemos leudeke, askoz gutxiago aipatzen badira ere: %13 eta %11, hain zuzen.

ERAKUNDE DESBERDINAK

Biek egin dute aurrera urratsa, biak dira hauteskundeotan EH Bilduko hautagaiak. Eta «hautagai gazteez» hitz egin beharrean, nahiago dute «hautagai» gisa izendatu beren burua, abizenik gabe. Izan ere, gizarte osoaren bizitzak hobetuko dituzten politikak egitea izango da berain helburua, ez gazteei bideratutako politikak



Ander Loyola. Zizur Nagusiko alkategai gisa aurkeztu du bere burua 25 urterekin, ilusioz heldu dio erronkari. Iñigo URIZ | FOKU

garatzea soilik, «herri hobe bat nahi dugulako, haren osotasunean». Beraien izen-abizen ez aurpegiz aurkezten badira ere, Loyolak adierazi du «erabaki kolektibo eta estrategikoa» dela gazteek parte hartzea. Nafarroari begira jarri da, eta adierazi du ez dela kasualitatea alkategai gazteak izatea Berriozarren, Irunberrin, Tafallan, Lizarran edo Tuteran: «Ez gara gutxi EH Bildutik egungo testuinguruari aurre egin nahi diogunak, eta horregatik apustu egin dugu aurrera urrats bat egitearen alde».

Borondatea eta konpromisoa kontu bat dira, eta bestea, benetako aldaketak egitea eta horiek gauzatzeko behar beste ahalmena izatea. Zabala- ren kasuan, Bizkaiko Batzar Nagusietarako zerrendakidea da, eta orain arteko militantzia maila lokalean garatu izan badu ere, gizarte langilea da lanbidez, eta gaur egun Bizkaiko Foru Aldundian egiten du lan; horrek «perspektiba nahiko handia» eman dio gizarte politiken inguruan jakiteko, adierazi digunez. Horri lotuta

kontatu du, agian instituzio ezezagunenak izan arren, Batzar Nagusiek eskumen handiak dituztela eta aldaketarako tresna ona direla: «Aurrekontu oso handia mugitzen dute, eta erabaki oso handiak hartzen dituzte, nahiz eta mediatikoki oihartzun handirik ez izan. Garrantzitsua da gure eredura ekartzea; EAJk sustatzen duen eredu pribatizatzailearen aurrean, ikuspegi ezker tiarragoa, zaintzarekiko arduratsua eta ikuspegi feministarekiko koherentea bultzatuko dugu».

Loyola, aldiz, herritarrek gertuen duten instituziorako hautagaia da, bere herriko udaleko alkategaia, alegia. Nafarraren ustez, askotan kritikatutako ohi da aldaketa erreala ezin direla tokian tokiko instituzioetatik etorri, baina bera ez dago inola ere ados: «Kontua ez da eskumenen arazoa dagoela, baizik eta borondate politikorik ez dagoela benetako aldaketak aurrera eramateko. Herritarren eguneroko bizitzak aldatzeko erabakiak askotarikoak dira, eta udalak

gaur egun prestatuta daude eta eskumenak dituzte aldaketak suposatuko lituzketen politikak egiteko».

Herriko militantzia esparruari loturik, komunitatearen beharra jartzen du erdigunean Loyolak. Izan ere, adierazi duenez, neoliberalismoa etengabe apurtzen ari da komunitatearen ideia, gero eta izaki indibidualistagoak izatera bultzatzen gaitu, eta horren aurrean, komunitateak eraikitzeke udalgintza tresna egokia izan daitekeela uste du. «Zenbat eta eskala txikiagoan aritu, orduan eta handiagoa da herritarren eta taldeen ahalgintzea. Maila horretan, elkarlanerako eta zuzeneko harremanerako aukera gehiago izaten dira; guk herritarren erabakitzeke eskubidea maila gorenera eraman nahi dugu».

Gazte hautagaiak ez dute kuota edota argazki bat bakarrik izan nahi, uste dute prest daudela boterea eskuratzeko eta herritarren eskubideen alde borrokatzeko, eta prest egoiteaz gain, prestatuta ere badaudela demonstratu nahi dute. Iritzi horretakoa da, hain zuzen ere, Ander Loyola: «Gazteok lehen lerrora etorri garenean, etorri gara demokrazia neoliberal honen krisiaren aurrean irekitzen diren aukera guztiak probestera eta iruditzen zait gure helburua ez dela besteek guri entzutea bakarrik, baizik eta erabakiak hartu eta gizarte osoaren eskubideen alde borrokatzea». Eneritz Zabalak esan du alderdi askok darabiltela ahoz ahoz gazteentzako eskaintza direla, baina «eskaintza» bat izatea baino gehiago da beharrezkoa, bere iritziz: «Ez digute aukerarik uzten lehen lerroan jarri eta benetako lana egiteko». Zentzu horretan, gazteak bo-

rroka askoren motorra dira, bere arabera, eta, alde horretatik, EH Bilduren jarrera txalotu du: «Uste dut EH Bilduk benetako apustua egin duela gazteoi aukera emateko eta erabakigune horietan ere parte izateko».

ABSTENTZIOA, BETI «HOR»

«Gazteak ez daude inon», «gazteek ez dute ezer egiten», «gure gazte garaian» edo antzeko beste hamaika adierazpidek forma zehatz bat hartu ohi dute hauteskunde garaian; «gazteek ez dute bozkatzeko» izan ohi da hori, hau da, abstentzioarena. Datuetara jotzea baina, aski izaten da baieztapen borobilak zalan-tzan jartzeko: EitbFocuseko azken inkestek emandako mikrodatuei begiratzuz gero, abstentzioa ez da %20ra iristen gazteen artean. Eta ahoz ahoz dabil-tzan zurrumurruek, zurrrenik, %60tik gora ere jarriko lukete kopuru hori.

Gazte hautagaiak ez ditu bereziki kezkatzen gazteen arteko abstentzioak, nahiz eta jakin egon egongo dela. Bilbotarrak adierazi du abstentzioa beti dagoela «hor», eta hala ere, ohartarazpen bat egin du: «Argi izan behar du-gu abstentzioa zenbat eta altuagoa izan, orduan eta mesede handiagoa egiten diogula eskuinari». Bere ustez, abstentzio gutxien dagoenean, ezkerrek gehiago irabazteko aukera izaten du. Gizartean ematen den fenomeno bat dela dakien arren, gazteek arduratsu jokatu-tuko dutela esan du: «Abstentzioa-rena askotan mamu bihurtzen da, argi dago hor egongo dela hauteskunde hauetan ere, baina gazteok ardura du-gu, eta arduratsu jokatu-toku dugu; geure proiektu eta al-

ternatibak instituzioetatik ere bultzatuko ditugu».

Gazteei hainbat eta hainbat gauza leporatzen zaizkiela uste du Ander Loyolak, baina bere ustez, gazteak «gizartearen isla» baino ez dira: «Ez gehiago, ez gutxiago. Inkestek edo nagusitzen diren diskurtsoek diotena diotela, nik uste dut abstentzioa ez dela gazteon-gan zentratuko». Hala ere, adierazi du sarri gazteak jar-tzen direla abstentzioaren jo-puntuan: «Baina horretara ga-toz, hipotesi soziologiko ho-riek haustera, abstentzioari aurre egitera, erdigunean gi-zartearen beharrian guztiak jarrita; paradigma historiko hori borrokatzera, muga guz-tiak hautsiz».

ILUSIOZ ETA KONPROMISOZ

Itxaropena, ilusioa eta lanera-ko gogo ahotan amaitu dute biek elkarrizketa. Zabalak Bizkaian erronka handia dutela adierazi du: «Igotzeko joeran gaude, baina ezinbestekoa da alternatiba garen espazio guz-tietatik bozkak lortzea; politi-ka neoliberalak geratzeko eta gure eredura ekartzeko guz-tion bozkak beharko ditugu».

Alkategai den partetik, Loyolak neurri zehatzak eta her-ritar guztien bizitzak hobetzeko konpromisoa hartuak ditu jada: «Kontua ez da gaz-teok gazteontzako politikak bakarrik bideratuko ditugula, prest gaude alor guztiak lan-tzeko. Ez gara gazte politikak bakarrik egitera etorri; aitzitik, hirigintza, ogasuna, gizar-te zerbitzuak... alor guzti ho-riek kudeatzeko prest gaude, eta ez alor sinboliko batzuk lortzeko bakarrik. Alegia, po-litika egitera gatoz, guztion-tzako politika; indarrez har-tuko diogu ekimen berri honi».



Monika DEL VALLE | FOKU

JONE GERUZAGA

LEHENENGOZ BOZKATUKO DU

«Ez digute politikaren funtzionamenduaren inguruko prestakuntzarik ematen»

Jone Geruzagak 20 urte ditu, erizaintza ikasten ari da eta Zornotzan bizi da. Maiatzaren 28ko hauteskundeetan lehendabiziko aldiz emango du botoa, norberak zer gizarte mota nahi duen adierazteko

modu bat bezala ikusten baitu.

Zer dira hauteskundeak zuretzat?

Badago gaur egungo egoera aldatu nahi duen jendea eta hauteskundeek aukera ematen dute

aldaketa hori gauzatzeko edo, behintzat, norberak adierazteko zein gizarte mota nahi duen. Politikaren funtzionamenduaren inguruko prestakuntzarik ematen ez digutenez, bozkatzeko orduan galduta

«Badago adin
tarte bat, 18
urtetik hasi eta
25 urte ingurura
arte, kontuan
hartzen ez dena,
batez ere aisialdi
aukerei
dagokienez.
Dagoena guk
antolatutakoa
da»

ibiltzen gara; horrela
sentitu izan naiz ni.
Gainera, gazteak
izateagatik, guk ez ditugu
zenbait egoera ezagutu
–gera bat, adibidez–;
beraz, gure ezagutza ez da
heldu batek duen bera.

**Uste duzu gazteak
izateagatik
konbentzitzeko
errazagoak zaretela?**

Bai, finean, inguruak
nolabait eragiten dizu.
Etxean ildo politiko jakin
bat badago, baliteke zuk
ere aukera bera egitea.
Lagunak antolakunderen
bateko militanteak
badira, horrek ere
eragiten du.

Zer da politika zuretzat?

Dena hartzen du, edo
hartu beharko luke,
behintzat. Arlo asko
hartzen ditu eta
horregatik daude
honetarako eta besterako
zinegotziak.

**Nolako lotura duzu
politikarekin edo
alderdi politikoekin?**

Ez dut nire burua
politikan parte hartzen
duen pertsonatzat, batez

ere, sentitzen dudalako ez
dakidala; beraz,
distantziatik jarraitzen
dut. Aukera politiko bat
bozkatu dut, baina ez
dut hortik gorako
loturarik bozkatu behar
dudan horrekin. Uste dut,
oro har, politikariek ez
dutela lotura zuzenik
gazteokin.

**Politikariek kontuan
hartzen dituzte gazteak?**

Hartu beharko lituzkete.
Herrian pisu nahikotxoa
daukagu eta behar dugu
gure beharrei jaramon
egitea. Hala ere, uste dut
gero eta hobeto egiten
dutela, guk herrian
badauzkagu aisialdi
aukerak gazteontzat
pentsatuak, baina badago
hutsune handia ere.
Hautagai gazteak
ikusteak niri konfiantza
ematen dit, fidatzen naiz,
baina agian helduagoa
den norbait ez. Gainera,
errazagoa da politikari
bat gazteon arazoez
arduratzea bera ere
gaztea bada, nahi gabe
aterako zaiolako, heldu
bati haren adinekoen
kezkak axola zaizkion
moduan.

**Zein dira gazteen
kezkak?**

Badago adin tarte bat, 18
urtetik hasi eta 25 urte
ingurura arte, kontuan
hartzen ez dena, batez ere
aisialdi aukerei
dagokienez. Dagoena guk
antolatutakoa da. Hori
gertatzen da gazteok ez
gaudelako politika
instituzionalean oso
sartuta; niretzat,
behintzat, “nagusien
kontuak” dira.

ANDER GAUNA LEHENENGOZ BOZKATUKO DU

«Politikariak hauteskunde garaian bakarrik hurbiltzen dira guregana»

Ander Gaunak 18 urte ditu eta
Batxilergoa amaitu berri du
Gasteizko Koldo Mitxelena
Institutuan.

**Zer dira hauteskundeak
zuretzat?**

Nik uste dut garrantzi gutxi
ematen ari gatzaizkiela.
Historian zehar boto bat
eman ahal izateko gertatu
den guztiarekin, orain
gainetik pasatzen garela
dirudi. Nik ez dakit zer
defendatzen duten PPK,
PSOEk edo beste edozein
alderditakoek. Nik ere ez
diot eman beharko
litzaiokeen garrantzia
ematen; hau da, ez dut
neure burua talde horretatik
kanpo uzten.

**Zein harreman mota duzu
politikarekin?**

Bada, paso egiten dut, ez dut
inolako harremanik. Nire
lagunek agian kontaktu
handiagoa dute eta gehiago
dakite politikaz, baina nik ez
daukat harreman esturik.

**Deskonektatuta zaude
politikariez?**

Bai, gauza urrun samarra da
niretzat. Guregana
hauteskunde garaian bakarrik
hurbiltzen direla dirudi.
Ordura arte deskonektatu
egiten zara eta bat-batean
denak etortzen zaizkizu
bonbardatzera.

**Zein dira gazteon kezkak eta
zer hartu behar lukete
kontuan agintariek?**

Nik ez nioke neuri edo
gazteoi axola zaigun gai bati
bakarrik erreparatuko.
Ikuspuntu orokor batetik

begiratzen diot eta alderdiek
planteatzen duten guztiari
erreparatzen diot, ez soilik
nire onurarako diren gauzei.
Hala ere, orokorrean
informazio gehiago behar
dugula uste dut, eta ez
onenak direla konbentzitzen
saiatzeko hainbeste
propaganda.

**Zure ustez, zerk edo nork
eragingo dizu botoa zein
alderdiri eman
erabakitzeko orduan?**

Ez dakit nori emango diodan
botoa. Inertziaz suposatzen
dut ezkerreko alderdi bat
bozkatu dudala, zer
defendatzen duten ere ondo
jakin gabe. Informazioa falta
zaidala uste dut, baina
onartzen dut ez dudala ez
interneten ez inon bilaketa
aktiborik egin.





Jaizki FONTANEDA | FOKU

GARAZI IBAÑEZ

ABSTENITU EGINGO DA

«Ez dago herritar arruntaren benetako ordezkaritzarik»

Garazi Ibañezek 24 urte ditu eta Itzulpengintza eta Interpretazioan graduatua da. Gaur egun Gasteizko bizilagunen elkarte batean lan egiten du, helduentzako ingeleseko eskolak ematen.

Zer dira hauteskundeak zuretzat?

Bada, oraintxe, egia esan, ezer ere ez. “Show” bat iruditzen zaizkit. Zerbaitetarako balio dutela pentsatu nahi nuke, baina, egia esan, ezkor samar nago. Iruditzen zait nire

botoak ez duela ezertarako balio, eta beraz, ez dut bozkatzera joateko ahaleginik egingo.

Zer harreman mota duzu politikarekin?

Hasieran, lehen aldiz botoa ematera joan behar izan nuenean, ilusio handia nuen eta politika-kontuekin egunean egotea gustatzen zitzaidan. Bozkatzera joan nintzen lehen aldian ilusioz gainezka nengoen eta alderdi guztiei buruzko informazioa

ALAIN NIETO

LEHENENGOZ BOZKATUKO DU

«Iritzia emateko eta gauzak aldatzeko aukera bat da»

18 urte ditu Alain Nieto gazte zornotzarrak. Batxilergoa ikasten ari da eta aurten izango du lehenengo aldiz botoa emateko aukera. Politikatik zertxobait deskonektatua sentitzen dela adierazi digu, baina, hala eta guztiz ere, bozkatzea gauzak aldatzeko modu bat dela uste du.

Zer dira zuretzat hauteskundeak?

Iritzia emateko eta gauzak aldatzeko aukera bat. Kakotx artean, bozka bat baino ez delako; hala ere, iritzia eman

dezakezu. Baina, ikastetxeetan, adibidez, ez digute inongo heziketarik ematen politikari dagokionez eta bozkatzea egokitzen zaigunean ez dugu ezer ulertzen.

Uste duzu gazteak izateagatik konbentzitzeko errazagoak zaretela?

Bai, inguruan daukazun jendeak eragin egiten dizu, dudarik gabe. Nork bere iritzia du, baina inguruan dauzkagun iritziek asko eragiten digute: familiak, lagunek...

Nahi gabe barneratzen duzun zerbait da, eta gero horrekin zeure pentsaera osatzen duzu.

Zer da politika zuretzat?

Politika dena da, bizitzako arlo guztietan dagoela esango nuke. Politika ez da instituzionala bakarrik, inondik inora ere. Erakundeetatik kanpo ere badago politika.

Nolako lotura duzu politikarekin edo alderdi politikoeekin?

Bozkatu dezakedan lehen

urtea izanik, lotura gutxi sentitzen dut, baina egia da lehen sentitzen nuena baino handiagoa dela. Ez dut inongo antolakundetan militatzen eta beraz, bada apur bat urrun sentitzen dudan zerbait.

Politikariek kontuan hartzen dituzte gazteak?

Horrela izan beharko luke. Gazteoi herri mailako politikak eragiten digu bereziki; gainontzeko erakundeenak ez horrenbeste. Orain ikusi dut alderdi batzuk hasi direla

hautagai bezala jende gaztea sartzen; izan ere, finean, gu gara etorkizuna. Hala ere, hautagaiak gazteegiak izatea arraroa egiten zait; beharrezkoa iruditzen zait eskarmentua izatea, baina uste dut ondo egin dezakegula.

Zein dira gazteon kezkak?

Herri mailan, lokalekin gertatzen ari dena arazoa da, adibidez. Gure aisialdi aukeretako bat da, baina gero eta traba gehiago jartzen dizkigute, eta beste aukerarik ere ez digute ematen.

bilatu nuen. Oraingoan, hauteskundeak datozela eta, telebista piztearekin bakarrik sumatzen da nolako egoera dagoen eta pentsatzen duzu: «Benetan bozka eman nahi diot pertsona horietako bati?». Bada, egia esan, ez.

Zer da politika zuretzat?
Politika garrantzitsua iruditzen zait, baina argi dago, azkenaldian gauzak nola dauden ikusita, herritar bezala ez diegula axola. Egia esan, nire egunerokoan erabat axolagabea zait.

Deskonektatuta zaude politikariez?
Bai. Ez dute inor ordezkatzeko, ez dago herritar arruntaren benetako ordezkartzarik, eta are gutxiago, gutxiengoena. Beren arteko eztabaida besterik ez dute bultzatzen, ia nork

«Ni kontratu finko eten batekin ari naiz lanean eta horrekin ez noa inora, egia esan. Ez dut erosteko ahalmenik inola ere eta ezin naiz independizatu ez zaidalako iristen. Nire inguruan lana da gazteok gehien kezkatzen gaituena»

lortzen duen diru gehien, ez boto gehien, ia nori ematen dioten diru gehien haren gauzak egiteko, eta alde horretatik, herritarrek bigarren planoan uzten dituzte erabat.

Abstenitzen zaren lehen aldia da. Abstentzioa aukeratu duzu aukera politikoez ez zaituztelako konbentzitzen edo tresna gisa ikusten duzulako?
Ez naute konbentzitzen eta, gainera, ez dute inor ordezkatzeko. Sentitzen dut botoa ematea ez doala inora. Nik badakit gizabanako gisa neure abstentzioa ere ez doala inora, hori oso argi daukat, baina ordezkatzeko ez nauen norbait ere ez diot botoa eman nahi.
Argi dago inork ezin zaituela %100ean ordezkatu, baina politikariek beren buruan

bakarrik pentsatzen badute eta benetan axola beharko litzaiekeena, herritarra, alde batera uzten badute, nire ustez ez da beharrezkoa botoa ematea.

Botoa eman duzunean, zerk edo nork eragin dizu botoa zeini erabakitzeke orduan?
Egia da beti izan dudala argi nori ez nion botoa emango, nire ideiekin eta balioekin bat ez etortzeaz gain, beste pertsona batzuei eskubideak kentzen dizkien alderdi bati bozka ematea ez delako kabitzen nire buruan. Gero, nire ustez, neure ideiekin agian gehiago lerrokatzen ziren alderdien artean, nire etxean beti alderdi berari eman izan zaio botoa eta orduan, nik ere alderdi berari botoa ematea espero zen, baina ez dut hori egin.

Botoa eman behar izan dudak bakoitzean informatu egin naiz; orduan, une horretan gehien konbentzitzen ninduenari eman izan diot botoa. Alegia, ez dut beti alderdi bera bozkatu.

Zure ustez, zerk kezkatzen ditu gazteak?
Ni kontratu finko eten batekin ari naiz lanean eta horrekin ez noa inora, egia esan. Ez dut erosteko ahalmenik inola ere eta ezin naiz independizatu ez zaidalako iristen. Beraz, nire inguruan, behintzat, lana da gazteok gehien kezkatzen gaituena. Nik, zorionez, badut lana, baina jende askok ez du halakorik. Eta lana badaukazu ere, zer egingo duzu hain diru gutxirekin? Ezin duzu gurasoen etxetik irten, ezin duzu familia bat hasi, ezin duzu ezer egin...

«Herri mailan, lokalekin gertatzen ari dena arazoa da, adibidez. Gure aisialdi aukeretako bat da, baina gero eta traba gehiago jartzen dizkigute, alternatibarik eskaini gabe»



Monika DEL VALLE | FOKU



Unai
GAZTELUMENDI

iRRITZIA: {

HATU
TESK
UND
EAK

Euskalwashing

Koldo SAGASTI

Maiatzaren 15ean 75 urte bete ziren Israelgo estatua aldarrikatu eta palestinarren hondamendia abian jarri zenetik. Bertakoek ‘Nakba’ esaten diote, arabieraz, zorigaiztoko egun horri. Egiari zor, Palestinaren eremuan bizi zen populazioa garbitu eta bertan juduentzako estatu bat ezartzeko proiektua mende erdi bat lehenago hasi zen mamitzen, mugimendu sionistaren sorrerarekin batera, eta zazpi hamarkada geroago garbiketa etniko kanpaina hark bere horretan dirau; hori bai, garai modernoetako eskakizunetara egokituta. Behinola, gudaroste paramilitar sionistek burututako sarraski ankerrek bultzatu zituzten 800.000 palestinarretik gora erbestera; egun, berriz, bestelako prozedura sotilagoak baliatzen dituzte euren asmo zitak

lak gauzatzeko; besteak beste, Palestina-koloniaren zatiketa, apartheid harresia, kolonien etengabeko hedapena, palestinarren eraikuntzen birrinketa sistematikoa edota apartheid legedia. Gaur, metroz metro konkistatutako lur eremu horiei behin betikotasun bermea emateko, Israelgo erregimenak azpiegitura iraunkorrak baliatzen ditu; horien artean, Jerusalem Ekialdeko koloniak hirigunearekin lotzen dituen tranbia. Trenbide horren eraikuntzan Beasaingo CAF enpresa dago nahasita eta krimen horretan parte hartu izanak zehar-kalte nabarmena ekarri dio mundu mailan bere irudi korporatiboari.

Gauzak horrela, Israelgo erregimenak bere irudi publikoa zuritzeko propaganda aparatua baliatzen dituen bezala, haren politika kolonialetan esku har-

tzen duten nazioarteko eragile eta konpainiek ere zurikeria-kanpaina eraginkorren beharra dute euren etika gutxiko jokaerak ezkutatzeke. CAFen kasuan, euskara eta euskal kulturaren inguruko ekimenen sustengua da bere jokabide kriminalaren gaineko arreta desbideratzeko trikimailua; dela Korrikaren kilometro bat diruz lagunduz; dela, azken asteotan bezala, CAF-Elhuyar zientzia sariak sustatuz.

Konpainia gipuzkoarrak argi utzi du, zehar-ondorioak gora behera, proiektu horretan jarraitzeke duen erabaki irrimoa. Orain euskal kulturgintzako eragileen garaia da, gizalegezko jokabidea erakuts dezaten eta ez dezaten euren irudia jar CAFen zurikeria-estrategiaren mesedera. Euskaraz zein arabieraz Nakbak oraindik badirauelako. •

Bakea eta bakeosoak

Amagoia MUJIKATELLERIA

Bakea eta elkarbizitza. Ederra lantzen ematen dutena politikari eta tertuliakideek, nolako lezio magistralak bakea zer den eta zer ez, matraka galanta elkarbizitza homologatuak inposatzeko. Zeini eta euskal herritarrei, bizikidetzaren forma, tamaina, testura eta koloreak hain ondo eta hain mingarri ezagutzen dituen herriari.

Imajinatu telebista aurrean zaudela plantxarekin, tertuliakide espainolak entzuten, sufritzen. Haiek banatzen dituzte bakearen eta elkarbizitzaren tituluak. Haiek erabakitzen dute zeinek aprobatu duen ikasgaia eta zeinek ez.

Bat-batean azken ordukoa Oriotik. Bihildako daudela, lehergai batek eztanda egin duela... nahasmena. «Garai bateko Euskadiko egoera gordinenak datozkiguburura», bota du kazetari espainolak. Eta gero isiltasuna. Erasoaren kolorea zehazten joan den neurrian baretu zaie asaldura. Hilketak matxista baten hipotesia agertu denean, beste aldera begiratu eta bakeaz lezioak ematen jarraitu dute. Baina, zein bake?

Etxe inguruko banku batean, arratsalde eguzkitsu batean, liburu bat lasai irakurtzea da bakea. Bake galanta. Gutxien espero duzuna da zure bikotekide ohia parera azaltzea, eskopeta batekin, eta ti-

ro egitea. Herritarrek eta ezagunek harrituta diote bakeosoak zela tipoa, lasaia, isila, “normala”, bertakoa.

Indarkeria matxistak egunero astintzen gaitu modu desberdinetan. Gizonezko bakeoso askok erasotzaile bat daramate barruan, *stand by* moduan. Hori da arazoa, ez dituztela belarri berdeak, ez direla urrutitik ikusten etortzen. Egunerokotasuneko tipoak dira, erasotzaileak *stand by*, bakeosoak, “normalak”, herrikoak askotan.

Eta garbi dago bizi dugun bakeak ere itxura eta azala baino ez dituela. Indarkeria matxista desagertzen den arte ez da bakerik izango. •



Beñat GAZTELUMENDI

Bertsolaria

Aldaketena

Barraskiloak ginen azkarrago bizi ginen garaietan. Bizkarrean kabitzen zitzaigun habia. Ginen guztia. Arropak, pare bat liburu, argazkiren bat eta hortzetako pasta eta zepiloa. Kito.

Gaueko autobusetan zeharkatzen genuen herri-tik herrirako distantzia; edozein ohetan hartzen gintuen loak eta, oherik ezean, edozein banku edo belazerekin ere konforme ginen. Edonon baikeneukan lagunak bat, edonoiz, ostua eskaintzeko prest.

Pixkana pisuz pilatu zitzaizkigun bizkarrak. Ugari-ritu egin ziren arropak, gizen- du liburuak, eta garbitzekoei sendagaiak erantzi genizkien. Xaboa eta hortzetako pasta soilik zirenei betaurrekoak batu zizkien gure heldu-aro miop-ak, edo lentilak, likidoak, tenperatura aldaketa ñimiñoenak pitzatzen digun azalarentzako uken-dua, noizbehinkako ajeentzako medizina.

Gero eta espazio handi- goa hartzen zuen ginenak.

Motxila bat ginen aurrean, gela bat ondoren, eta etxe bat azkenean. Interneteko atarietan eta higiezin agentzien erakusleihoetan erre genituen begiak gure patriken itogin eta guzti abaro emango zigun zerbaiten bila. Eta behin aurkitutakoan, han joango ginen etxea ezagutzera.

Sartu eta etxe hutsaren hormetan oihartzun egingo zuen gure urratsek, aurretik bertan bizi izan zirenen usai- nen aztarnak atzemango genituen libxibaren perfumea- ren arrakal-etan. Gure ondasun apur- rak kokatu arren erdi hutsik segituko zuen etxeak. Objektuz objektu zabalduko



Gizonezko bat, hauteskundeetako kartel bati begira. Marisol RAMIREZ | FOKU

genuen ginen hura. Azkenean, gure gorputza- ren usainak etxeko hor- ma, armairu eta baxerara itsatsita gera- tuko ziren.

Sekula beteko ez ge- nuela uste genuen leku hartan gainezka egingo genuen. Eta aldian-al- dian, berriz miatuko ge- nituen higiezin- en agen- tzien erakusleihoak, sekula ordaindu ezingo genituzkeen etxeen ira- garki-ak ia ukitzera hel- duko ziren gure begiak. Zer da, bada, biolentzia, gose denari sekula aho- ratuko ez duena parean jartzea ez bada.

Halako batean, ozta-oz- ta ordaintzen genuen alokairua garestitu zi- gutelako, edo ustekabe- ko mahukaren batekin topo egin genuelako, etx- ez aldatzea erabaki- ko genuen. Eta etxe al- daketa- z etxe aldaketa, mudant- zaz mudantza, are pisutsu- ago egingo zitzaigun gine- na; objek- tu gehi- ago pilatu- ko ge- nituen gure barraskilo- oskolar- en barruan. Etxe batetik besterako tran- sizioan, hilabete- etan aterpetu gintuen etxearen gain- beheraren lekuko izango ginen: hezet- asun arrastoak sa- baian, sartu ginen egunean egin arren ordura arte ezkutuan egon zen marka armairu ertz batean, maratila askatuak ateetan eta tantaka odolusten diren kanilak. Da- torrenaren distiraren parean, are itzalago uztera goazen oskola.

Ez dakit zergatik den, baina gauza bera gertatzen zait hauteskundeetan hautagaien kartelak iristen zaizkidanean. Etxe hau zein agentziarena den ez dakit oraindik, ordea. •

{ koaderno } Iker BARANDIARAN

Gora zu eta zure umorea

Lagun bat hil zaigu duela gutxi bat-batean. Espero ez genuela, ustekabea. Oso-oso autonomoa zen, izaera oso pertsonalekoa eta erabat askea bazen ere, nahiko “alemana” bere ohitura eta gauzetan: gauzak oso argi omen zituen eta ez zen erraz hortik ateratzen. Hala ere, diziplina horretatik eta bere oskoletik kanpo bazuen sozializatzeko beharra eta nahia, eta bere modura erakusten zuen barruan zeukan bihotz handia.

Mundu honen gordintasunean eta bere ustezko izaera partikularrean bazekien hala moduz, bere estiloan, jakina, bere onena erakusten eta partekatzen, eta eskaintzen zuena ez zen inola ere hutsala. Hain zuzen ere, bere kabuz eta bere molde propioan murgilduta bazen ere, orain, bere absentziaz berari buruz mintzatzeko elkartu garenean, konturatu gara lagunok –asko gara– hutsune handia utzi duela askorengan.

Baditugu anekdota ugari, tonaka, ustez edo itxuraz hain serioa zirudien lagun honekin batera bizi izandakoak, bakoitzak bereak, eta guztiak gogora ekarrita etengabe irribarrea ateratzen digutenak. Halakoetan konturatzen gara, gure izaerak eta bizipenek baldintzatuta, zer nolako altxorrak gordetzen dituen gutako bakoitzak, tantaz tanta azaleratzen baditugu ere, momentu eder txiki horiek bizipoza baitira. Halakoetan, falta zaizkigunean, estimatzen ditugu une berezi horiek haien taimainan, merezitakoan.

Joan dira aste batzuk gure artean ez dagoenetik eta etengabe burura etorri zait bera, baita berarekin bizi izandako pasarte ugari ere. «*Esa gente afilada que se te clava*», esan zuen berak duela urte mordoxka aurretik galdutako beste lagun bat, Portu, deskribatu nahian. Eta definizio hori erabat aproposa da justu bera erretratatzeko, hemendik oharkabea pasatu nahi zuela bazirudien ere; ez da horrela izan. Alderantziz.

Bere apaltasunean, bere (tartekako) isiltasunean, bere ustezko aurrera egiteko izaeran, lotsatu edo hausnartzerakoan zuen modu berezian.... Utzitako arrastoa hor dago, eta sakona da.

Amets egin dut egun hauetan berarekin sarri, eta beste lagun batek azaldu berri dit seguruenik modu hau, sentsazio jakin hau, bere agurtzeko modua izan dela. Zirrara bat, ona, sentitu dut... Zeinek daki, auskalo!

Bat-bateko heriotzek hil denaren sufrimendua ekidin edo arintzen badute ere –eta horrek badu berebiziko garrantzia, itzela–, paradoxikoki, elkar agurtzeko aukera, une berezi hori, oztopatzen dute.

Horren harira, behin baino gehiagotan hausnartu dut maite eta lagun ditugun pertsonen behin hil eta gero egiten dizkiegula omenaldi edo eskertzak, intimoak zein kolektiboak. Eta hori oso garrantzitsua da,

Bat-bateko heriotzek hil denaren
sufrimendua ekidin edo arintzen dute,
baina, paradoxikoki, elkar agurtzeko aukera
oztopatzen dute

oso ona da, beharrezkoa esango nuke, behar den moduan agurtu eta ahal den heinean sentimendu hori edo horiek partekatzen ditugunok elkartuta egitea; baina zer hobe, bizirik gauden bitartean, albokoek ematen digutena –ona denean, jakina– baloratzea, eskertzea eta horrela jaso dugula eta gozatzen dugula transmititzea baino?

Guk, oraingoan, aurrez aurre ezinezkoa zaigunez eta gorputzak hala eskatuta, oroimen jaia egingo diogu eta elkartuko gara lagunok berak maite zuen moduan eta rantxera, joko, idatzi, garagardo, janari, berriketaldi, rock-and-roll, esaldi borobil eta bestelakoak lagun artean partekatzeko. Gora zu eta zure umorea! •

75 URTEKO DENDA BAT

Gernikako historiaren zati bat, salmahaiaren beste aldetik kontatuta

Apirilaren 26an 86 urte bete ziren Franco-ren agindupean Gernika bonbardatu zutenetik. Garai hartarako, ateak zabalik zituen Antonio Amutioren lehen dendak herriko hirigunean, oraingotik ez oso urrun. Egungo saltokiak, merkatu plaza enblematikotik oso gertu, 75 urte bete ditu; bizitza luze bat, tokiko merkataritzan ohikoa izaten denerako, eta gizarte baten bilakaeraren kronika marraz dezakeena.

Zazpi hamarkada luzeetan gauza asko aldatu dira. Lehenik, bi monetaren erabilera ezagutu dute, adibidez. Eta horrekin batera, isilean gertatu diren baina egokitzena eskatu duten hamaika aldaketa eta eraldaketatan murgilduta ibili da saltokia, uneko beharrei erantzuna emateko. Ibilbide horren oroitzapenak historiaren zati bat marrazten dute, horiei erreparatuta gizartearen argazki bat osatzen duten

 **JENDARTEA** / Nerea Goti

1948an zabaldu zituen ateak Drogueria Amutiok, baina lehenagotik izan zuen denda Gernikan. 75 urte geroago, xarmaz beteriko salmahai zahar horren atzean ibili diren azken bi belaunaldiak hitz egin du GAUR8k, memoria osatzen duten oroimen horiek jasotzeko eta denda, jendea, produktuak... nola aldatu diren gogoratzeko.

hainbat elementu agertzen dira: jendearen ohiturak, beharrak, produktu gogokenak...

75 urterekin, Gernikako denda zaharrenetakoa da Amutio drogeria, zaharrena ez bada, baina negozioaren historia apur bat arinago hasi zen, gainera. 1936ko gerra aurrekoa zen Antonio Amutiok Gernikan zabaldu zuen lehen komertzioa, hirigunean bertan zegoena. Garaiko aipamenik ere bada. 1935. urteko iragarki batek ondorengoa dio: «Semillas de puerro y remolacha. Las mejores que se conocen y que

tan buen resultado dieron en la temporada anterior se hallan a la venta en la Drogueria de Amutio, de Guernica». Gernikazarra historia taldeak berreskuratu du artikulua.

AUTOBUS GIDARIEN ENKARGUAK

Etxeok altxor gisa gorde dezaketen dendari buruzko beste artikulua bat ere aurkitu dute talde memorialistako kideek. Amutiok saltzen dituen hazien kalitatea goraipatzen du azken horrek eta dendaren generoak arrakasta duela nabarmentzen du. Are gehiago, arti-

kuluak dio astelehenetan, azoka egunetan, Gernikara joaten ziren autobusetako langileek beste herrialde batzuetako nekazarien enkargu ugari jasotzen zituztela. Kronikaren arabera, Amutio jaunak nekazari gipuzkoarren gutun ugari ere jasotzen zituen, hazien kalitateagatik esker ona adierazteko idatziak, eta Donostian sukurtsal bat irekitzea ere iradoki zioten.

Etxeok diote izen eta izaren osagai nagusiak gorde dituela negozio ezagunak, eta hori izan daitekeela hainbeste urtez iraun izanaren sekretuetako bat. Argazki zaharrei begira, kartel iragarle zahar batek saltzen diren produktu nagusiak zerrendatzen ditu: «Perfumes, pinturas, barnices, cepillos, jabones, lustres, semillas».

Bistakoa da, gainera, drogeria klasiko batek ez duela salmenta bakarrik egiten; etxera gomendioak dira beste sekretuetako bat. Hamarkadetan zeharreko ibilbide horretan, gertuko arreta izan da Amu-

Lerroon azpian, Amutio familiako kide batzuk dendan, 70eko hamarkadan hartutako irudi batean.
GAUR8



tioren ikurra. Horren lekuko izan da GAUR8. Mugimendu handiko egun bat da, eta bertarutzen diren erosle asko, produktu zehatz bat eskatu beharrean, gomendioa bila dabilta: «Zerekin garbitu ahal ditut....? Zer daukazue honetarako edo beste horretarako?» Ordubeteko gutxi gorabeherako tartean dendara sartu diren hainbat bezerok aholkua eskatu dute. Horretaz jakitun, garai berriak aholkua emateko eskaintzen dituen bide berriak ere esploratzen ari da Ainara Amutio, dendaren kargu egin den hirugarren belaunaldiko kidea, sare sozialetan publikatutako bideo laburren bidez, esaterako. Ekimenak emaitzak izan dituela dio, bideoak ikusita gazteak hurbiltzen ari direla nabaritu du eta.

Gauzak asko aldatu dira ka-lean 75 urtean, edo ez hainbeste, hain ibilbide luze bati erreparatuta. Horma horiek hitz egingo balute gizartearen bilakaeraren irudia osatuko lukete produktuei begira bakarrik. Izan ere, asko esaten dute oraindik salmahai zaharrak, apalategi altuek, bazterretan pilatutako generoak... Denda zaharren xarma gordetzen du ateak zabaltzean kalera kapazuen edo koloretako fularren zintzilikarioa atera ohi duen saltokiak.

Astelehen goiza da, merkatu eguna Gernikan, eta GAUR8k Amutio drogeriako etxekoe-kin hitzordua egin du. Herrian, bonbardaketaren urteurren ekitaldien oihartzuna dago oraindik, giro berezi bat arnasten da edo, behintzat, hori sumatzen dugu data horren inguruan Gernikara bertarutzen garenek; sirena hots ezagun horien oihartzuna, irudi zaharrak... memorian iltzatura, ziurrenik.



Mugimendu handiko egunak dira oraindik ere astelehena Gernikan. Gurasoak, Felicidad Izagirre eta Javier Amutio ere, bertan daude. Mostradore atzean 42 urte eman ondoren, egun batzuetan denda ingurura hurbiltzen dira esku bat botatzera. Jubilatuta daude biak, baina dendari izateari utzi ahal dio bezeroei arreta ematen hainbeste ordu egin dituenak? Denda izatea nahiko esklaboa da, ordute-

Ainara Amutiok, dendaren kargu dagoen hirugarren belaunaldiko kidea, duela bost urte hartu zuen gurasoengandik lekukoa.
Aritz LOIOLA | FOKU

giengatik batez ere, baina «onena da» bezero batzuk «etxerako modukoak» direla, diotenez.

HURBILTASUNA, KONFIANTZA

«Jende askorekin konfiantza berezi bat» eraikitzen joan da denborarekin. Horregatik, azalera handiko merkataritzan eskaintza zabala dagoen arren, beste xarma bat dauka Amutiok, eta horrek lagundu du bezero asko kontserbatzen,

azaldu dutenez. Hurbiltasunak, konfiantzak, zuzeneko harremanak denda zaharreko ateak gurutzatzera eramaten du, Amutiotarren iritziz.

Ainara Amutiok duela bost urte hartu zuen lekukoa eta dendaren kargu egin den hirugarren belaunaldiaren ibilbidea osatu du. Pozik dago tradizioa jarraitzen; betidanik ezagutu duen negozioa da, gainera. Ordutegia da ikusten duen oztopo bakarra, baina gogoratu duenez, lehen, aitita eta amamaren garaian, eguerdian ere ez zuten ixten.

Oroitzapenez beteriko lekua da, beraz, orain gobernatzen duen denda. Goialdean bertan zuen eta oraindik ere badu familiak etxea. Denda etxearen luzapena izan da, familiaren historiaren ardatza, azken belaunaldiak bertan hazi baitira, negozioaren inguruan. Familia eta lanbidea nekez bana daitezke Amutiotarren kasuan, lotuta joan baitira, ha-

BONBARDAKETAREN PASADIZOA

1948. urtean zabaldu zuen Antonio Amutiok drogeria gaur egun dagoen kokalekuan, baina aurretik Amutio denda zaharrago bat egon zen 30eko hamarkadaren hasieran. Ez dakite zehazki zein kaletan, oroimenaren zati hori ezabatu da, baina bonbardaketarekin lotuta gorde duten pasadizoa partekatu dute GAUR8rekin, dendaren kontakizunaren zati bat bilakatu baita. 1937. urteko apirilaren 26 hartan, sirena

hotsak entzuten hasi zirenean, babes bila ihesi zebilen Antonio Amutiok lagun batekin egin zuen topo. Hark Andra Mariko aterpera sartzeko esan zion, baina Amutiok handik urruntzea erabaki zuen. Erabakiarekin bizitza salbatu zuen ziurrenik, bukatu gabe zegoen aterpe hartan hainbat lagun hil baitzituzten faxisten abiazioaren bonbek, gogoratu du Ainara Amutiok, eta onartu du guralukeela garai hartaz gehiago jakin.

markadetan zehar eta familia-ko kide gehienak bilduz: aitita-amama, gurasoak eta alabetako bat orain.

HAZIEN ETA LURRINEN DENDA

Saldutako produktuak aldatzen joan dira denborarekin, noski, baina haziak dira, besteak beste, mantendu direnak eta dendako ikur izaten jarraitzen dutenak. Izan ere, baratzea prestatzen hasteko garai bete-betean elkartu gara Amutioarren etxean eta solasaldia izan bitartean asko sartu dira hazi batengatik edo bestearengatik galdezka.

Lurrinak ziren dendaren beste izarretako bat. Granelean egiten zituzten koloniak eta ontziratuta saltzen zituzten. Lurrin ezagunenen kopiak ziren esentziak erabiltzen zituen Antonio Amutiok, gerora Felicidad Izagirre errainak formula garatzen jarraitu zuen, baita nahiko lurrin gogorrak sortu ere –dio barre artean–, esentziak beste kolonia batzuekin nahastuta.

Beste bitxikeria bat ere bazuen Amutio dendaren sortzaileak, gogoratu dutenez. Gorbata erabiltzen zuen beti dendan, eta komertzialak zetozenean gorbata jartzeko esaten ei zien, edo sikiera jaka janzteko.

CHIMBO, ARGIZARIA, VARON DANDY

Urtemugaren harira Harkaitz Petralandak sortutako bideoan historia horren pasadizo batzuk kontatu dituzte. Familiaren eta ohituren kronika adierazten duten kontakizunak daude; garaian emakume batentzat batere erraza ez zen lanaren eta seme-alaben zaintzaren arteko kontziliazioa bera, esaterako. «Guretzat denda izan da dena», dio Felicidad Izagirrek.



Denda dena izan delako, berehala gogoratzen du Izagirrek zeintzuk ziren duela urte batzuetako produktu izar horiek, haziak erakargarritasun nagusia izan diren arren, hori ere aldatzen joan da eta. «Lehen pilo bat saltzen ziren solorako gauzak, orain gazteek gutxiago egiten dute, nagusiak jubilatuta dira edo joan egin dira, eta asko aldatu da hori dena», kontatu du dendariak.

Amutiora hazi bila joaten ziren bezero asko, baina baita

Felicidad Izagirre eta Ainara eta Javier Amutio, dendaren aurrean.
Aritz LOIOLA | FOKU

Hazien erosketen enkarguak hartzen zituzten lineako autobusetako gidarien oroitzapenetik salmentak online eskaintzera pasatu da lurrinengatik ere ezaguna zen denda

Gertutasunaz, konfiantzaz... hitz egiten duen kontakizuna egiteko era bat marrazten du; herriko memoriaren zati hori gordetzean beste atal batzuen ondoan gorde den zerbait

bestelako produktuen bila ere. Chimbo xaboia izarretako bat zen, antza, baina baita altzariari emateko argizaria ere. «Orain gutxiago saltzen da, baina lehen argizari asko ematen zen altzariak garbitzeko, ontzeko... eta gu beti arte onarekin, gomendioak ematen... Hori orain arte mantendu dugu, beti, ezpain margoa aukeratzeko bada ere», nabarmen du Felicidad Izagirrek. Iraganera begirako bidaia honetan, Varon Dandy garai bateko kolonia ezaguna agertu da solasaldian: «Hura pilo bat saltzen genuen, esentzia moduan genuen eta beste kolonia batekin nahasten genuen; jendeak gustuko zuen, eta hainbat taimainatako poteetan saltzen genuen».

Krisi garaiez galdetuta, hainbat izan direla diote Felicidadek eta Javierrek, dendaren buru egon diren bikotekideek,

baina bat aipatzekotan, merkataritza gune handien iritsiera nabarmendu dute. Herriko dendaren arteko harremana ere etorri da mahai gainera: «Bezeroek eskatzen zutena ez bagenuen, ez dugu inoiz arazorik izan herriko beste denda batera bidaltzeko»

Hain zuzen ere, denda txikitatik ezagutu duelako, erreleboa ez da zaila izan Ainara Amutioarentzat. Betikoaren eta berriaren arteko uztarketa horretan, «beste erakusleiko bat dira sareak», dio era naturalean, eta salmentak online egiteko aukera ere aipatu du, Amutiok webgunea ere baduelako gaur egun. Produktuen eskaintza berri behar izan dute, era berean, estetikaren arloko produktuak edota jostailuak eta moda osagarriak eskaintzeko, eta garaian garaiko beharretara egokitzeko berritiko bideari jarraiki.



Patxi BELZAIZ

IKUSMIRA

LOKATZETAN, HERRI BAT

Bi lagun mahai batean mokadu bat egiten, egun euritsu batean. Bi lagun, lokatzez inguratuta, euskararen alde trago bat partekatzen. Bi lagun, euskararen erreskatean. Ez zait postal ederragorik okurritzen herri bat munduari erakusteko. Hemen, egun eguzkitsuetan eta hondar epeletan, lur lokaztuetan eta egun euritsuetan, bada hizkuntza txiki bat, taupada luzekoa eta ahots suabekoa, maite dutenek kulunkatzen dutena. Ikurrinak balio du burua euritik babesteko, haize freskoaren kolpea bizkarrean epeltzeko. Eguraldiak ez du mimatu aurten “Herri Urrats”. Bestelako zaintzak beharko ditu berriz ere euskarak Ipar Euskal Herriko lurretan. Peio Jorajuriak, Seaskako lehendakariak, ezin zuen hobeto adierazi: «Ikastolen eta euskararen garapena Ipar Euskal Herrian eguraldiaren arabera egiten da oraindik». Euskarak errekek eta ibaiak behar ditu, jarioa izateko, bizirik segitzeko. Toki askotan, ikastolak dira euskararen errioak. Amagoia MUJIKA TELLERIA

OHIKOA BERRIRAKURRI

«Leer la vida/ Bizitza irakurri» antologia argitaratu berri du Gerardo Markuletak

Sei poema liburu zituen argitaratuta Gerardo Markuleta oñatarrak gasteiztarak oraintsu arte; beraz, ez zuen eskarmenturik falta genero horretako zazpigarrena argitaratzeko. “Leer la vida/ Bizitza irakurri” haren poesiaren antologia da, “Larrosak, noizean behin” (1990) ‘Jon Iriberry’ ezizenez sinatu zuenak zabaldu eta “Denbora bere lekura” (2015) lanak itxi zuen poesialdiko aukeraketa. Jon Iriberry ezezagun haren ezohiko poemak Markuleta- ren poesia heldua bihurtuta. Ezagunak dira haren zenbait poema, halaber, Jabier Mugaruzaren eta Mikel Urdangari- nen ahotsetan.

Pozik ageri da Markuleta Zaragozako Olifante argitale- txeak kaleratu dion lan hone- kin, ez baitzion eragozpenik jarri bere olerkien itzulpenare- kin batera poemak jatorrizko hizkuntzan ere argitaratzeko eta, oro har, argitaletxe horre- tan jasotako tratuagatik.

HURBILEKOAREN BEHAKETA

Egunerokoa, ohiko gatazkak eta egoerak dakartza Markule- tak bere poemen hizpidera, eta hurbilekoaren behaketa horri erreparatu dio Angel Erro idazle eta halaber poetak ere Markuleta- ren antologiari egin dion sarreran. Dioenez, urregilearen irudia gogoratu zitzaion xehetasunik txikienari eskainitako poesia delako, hurbilekoaren behaketa zeha- tzari, ia ezin sumatuzkoa de- nari. «Badira poetak ekaitzari gure orde- z begiratzeko prest daudenak, eta ongi dago hala izatea. Gerardo Markuletak, al- diz, jakina den horretan ezohi- koa aurkitu nahiago du [...] gu- ri errealitatea itzuli «lehen

LITERATURA / Xabier IZAGA GONZALEZ

Bere lan poetikoaren hautaketa bat gaztelaniara itzuli eta argitaratu berri du Gerardo Markuletak : «Leer la vida/ Bizitza irakurri». Haren poesia euskaraz irakurri ezin izan duenak gaztelaniaz irakurtzeko aukera du orain; gainera, euskaraz ere badago irakurgai antologia hori Zaragozako Olifante argitaletxeak plazaratutako edizioan.



Gerardo Markuleta, Jean Echenozen «Isil mandataria», berak itzulitako liburua, eskuan.
Gorka RUBIO | FOKU

aldiz senti dezagun». Literatu- ra esaten zaio horri.

Bere poemak gaztelaniaz emateko ez du konfiantzazko itzultzailerik bilatu behar izan, itzulpengintza baita Markule- taren jardun nagusia, testu poetikoen itzulpenean eta euskarazko testuen gaztela- niarako bertsioetan espeziali- zatutako literatura-itzultzailea denez gero. Julio Cortazarren, Eduardo Galeanoren, Jean Echenozen, Françoise Sagan- nen, Samuel Becketen, Michel Houellebecqen lanak eta zen- bait ipuingile katalanen “Hobe kontatzen ez badidazu” bildu- ma euskaratu ditu. Vicent An- dres Estellesen, Angel Guinda- ren eta Blas de Oteroren poesia eta “Poetas catalanes contemporáneos” antologia euskaratu ditu, baita Angel Gonzalezen poemak ere, Mun- duko Poesia Kaierak bilduma- ra ekarrita. Bestalde, Anjel Ler- txundi, Harkaitz Cano eta Kirmen Uriberen lanak euska- ratik gaztelaniara eraman di- tu, baita Rikardo Arregi Diaz de Herediaren eta Kirmen Uriberen olerkiak ere.

Ibilbide luzeko poeta baten bilakaera eta haren poema- li- buruen hainbat kritikatan hainbeste aipatutako harako «ahots propioa» bilatzeko ahalegina sumatzeko aukera ematen du antologia honek. Ahots gordina umotu arteko bilakaera. «Iriberry vs. Marku- leta balizko bataila literario horretan, bigarrena ateratzen da garaile, nabarmen», idatzi zuen Aritz Galarragak 2019an. “Leer la vida/ Bizitza irakurri” honetan irakurleak aukera du balizko lehia hori liburu be- rean ikusteko. Baita orain ar- tean euskaraz irakurri ezin izan duenak haren poetikaren berri izateko eta, zalantzarik ez, hartaz gozatzeko ere.

ANTIGUAKO TXAPELKETA

Donostiako pilota torneo berezi eta ospetsuak 75. ekitaldia beteko du aurten

Antiguako Pilota Txapelketa 1943an sortu zen auzoko pilotazale batzuen eskutik.

Antza denez, Sukia kalean zegoen Carmenolo tabernaren jabea, Manolo Amador, oso pilotazalea zen, bertan biltzen ziren zenbait bezero bezala. «Jose Mari Salsamendi, Teodoro Muelas, Sixto Santesteban, Cesareo Fernandez, Ignacio Goikoetxea, Angel Aldasoro eta Albizu abizeneko beste pilotazale bat izan ziren aurreneko edizio hura antolatu zutenak», gogoratu du Jesus Mari Rubiok, antolatzaile taldeko presidente beteranoak.

«Finalisten izenak ikusita, badirudi auzoko pilotariak jokatutako zutela lehen edizio hura.

KIROLA / Asier AIESTARAN

Antiguako Pilota Txapelketa ezaguna 75. urteurrena ospatzen ari da. Sortu zenetik urte gehiago igaro diren arren, abuztuan 75. ekitaldia jokatuko da eta Antiguako Pilotazaleok elkarte antolatzaileak ekitaldi zerrenda oparoa antolatu du. Txapelketaren ibilbidea ederki ezagutzen duen Jesus Mari Rubiorenkin izan gara.

De la Maza, Matias Izagirre... Horiek auzoko pilotariak ziren, nik gerora ezagutu ditutako diot, jada adin bat zutenean», gehitu du Rubiok. Eta lehen urteetan txapelketa bi urtetik behin jokatzen zela gaineratu du: «1943an bai, 1944an ez; 1945ean bai, 1946an

ez... Horren zergatia ez dakit ziur, baina komentatzen da Buruz Buruko Txapelketak orduan erabiltzen zuen sistema kopia nahi zutela, orduan hura ere bi urtetik behin jokatzen zelako».

1949tik aurrera, ordea, urtero jokatzen hasi zen eta bost aldiz

bakarrik geratu da jokatutako gabe: 1954an, 1958an, 1974an, 1992an eta 1993an. «Torneoa, batez ere, binaka jokatutako da, baina urte batzuetan banakako txapelketa ere antolatu zen. Historikoki Lehen Mailan eta Bigarren Mailan jokatzen zen txapelketa. Gero jubenil maila gehitu zen, eta 1990eko hamarkadatik aurrera mailak ofizializatu egin ziren. Gaur egun antzeko jarraitzen dugu: 'Elite' maila dago, alde batetik, eta 'Promesas' esaten dioguna, bestetik, non jubenil onenek ere jokatzen duten», dio Rubiok.


Parte-hartzeari dagokionez, azken aldaketa aipagarria emakumezkoen agerpena izan zen. «2017an, emakumezkoen txapelketa abiatu genuen. Edizio bat, bigarrena, binaka jokatutako zuten, baina besteetan banaka aritu izan dira. Hori aurten aldatuko da, berriz binaka jokatutako igaroko direlako. Gero eta emakume gehiago dabilta pilotan, maila asko igo da eta lehiaketa ederra antolatu daiteke binaka ere».

PILOTALEKU BEREZIA

Antiguako Txapelketa berezi egiten duen ezaugarrietako bat pilotalekua da. Auzoaren bihotz-bihotzean dagoen frontoia da, urtean zehar edonorentzat irekia, motza eta sabai oso baxukoa. Horrek asko baldintzatzen du bertan egiten den jokoa, baina xarma berezia ere ematen dio.

«Lehen, frontisa bakarrik zeukan. Iparraldeko plaza libre modukoa, baina forma berezirik gabe, errektangularra. Eta zorua lurrezkoa zen. Alboan bolatoki bat zegoen, urte askoan bertan iraun zuena. Eta gero aldatzen joan zen: ezker pareta eraiki zen; lurra zementuzkoa jarri zen; hiru bat alturako harmaila

Ioritz Arrieta
hernaniarra, 2014ko
finalean, zabaletik pilota
bat eramaten.
Gorka RUBIO | FOKU



txiki bat egin zen; 1995. alde-
ra frontoia estali egin zen;
atera eta gorde egiten den
harmaila bat gehitu zen,
oraindik erabiltzen dena...»,
aipatu ditu Rubiok frontoiak
urteotan izandako eraldake-
tak.

Aurki beste bat ere etorriko
omen da: «Aurtengo torneoa
amaitzen denean harmaila
zaharra bota eta berria erai-
kiko da. Udalak auzoei
proiektuak proposatzeko egi-
ten dien deialdian atera zen
idea, eta bozkatuena izan
zen. Harmaila berria metal-
koa izango da, egurrezko
eserlekuekin. Pilotalekua
egungo segurtasun arauetara
moldatzeko aukera emango
digu, nahiz eta edukiera mu-
rritzuko den apur bat».

Eta pasadizoak kontatzen
hasita, Rubiok frontoia estali
aurretik euriarekin izaten zi-
tuzten komeriak gogoratu di-
tu. «Euriak beti sortu izan
dizkigu buruhausteak. Asko-
tan gertatu izan zaigu jaialdi
baten erdian euria hastea eta
partidak beste frontoi batean
amaitu behar izatea. Tor-
neoaren martxa jarraitzeko
egiten genuen, atzerapenak
ez piltzeko. Traste guztiak
hartu eta Añorgako frontoira
joaten ginen. Lehenik, pilota-
riak eramaten genituen esku-
ra genituen autoak erabiliz.
Eta ondoren zaleren batek
gurekin etorri nahi bazuen,
hura ere eramaten genuen
ahal zen heinean».

Beste anekdota kurioso bat
ere oroitu du: «Finaletako
egun bateko anekdota polit
bat ere badago. Urtero final
egunean bazkaria egiten du-
gu Iztingorra elkartearen pilo-
tariak, babesleak, antolatzaile-
ak... Bada, bigarren finala
jokatzen ari zela euria hasi
zuen, eta erabaki zen bazkal-



tzera joatea eta partida baz-
kalondoan jarraitzea».

Sabaia jarri zenean amaitu
ziren arazo haiek. «Esan
behar da sabaia bildu egiten
dela, ireki eta itxi egin daite-
ke. Aurreneko urteetan hala

Jesus Mari Rubio, horren
ongi ezagutzen duen
Antiguako pilotalekuan.
Gorka RUBIO | FOKU

egiten genuen. Eguraldi ona
bazen, irekita jokatzen zen
eta euria edo euri arriskua
bazegoen, itxi egiten zen.
Kontua da urteekin arazoak
ematen hasi zela. Batzuetan
irekitzen genuen eta gero itxi

ezinik ibiltzen ginen. Eta ho-
rregatik erabaki zen itxita uz-
tea betiko».

PILOTARI ONENAK GIRO BEROAN

Txapelketaren beste ezaugarri
nagusietako bat betidanik izan
duen kirol maila da. Afiziona-
tu eta gazte mailetakoko pilotari
onenek hartu izan dute parte
bertan. «Gaur egun, esango
nuke Aspe eta Baiko enprese-
tako pilotarien %99 hemendik
pasatutakoa dela. Errioxarrak
ere bai. Gogoratzen dudana izar
bakarra, hemendik pasatu ga-
bea, Titin da, baina uste dut
bakarra dela. Olaizolatarrak,
Barriola, Unanue, Koka... de-
nak hemendik igarotakoak di-
ra. Gu oso eskertuta gaude pi-
lotariei. Atzelari jotzaileen
kasuan, adibidez, hemen ezin
dute asko luzitu, pilota oso
motelak erabiltzen ditugula-
ko. Frontoi motza da, sabaia
oso baxu dago... Baina uste
dut torneoari balioa ematen
diotela», eskertu du Rubiok.

EKITALDI UGARI HILABETEOTAN

Urteurrena ospatzeko ekitaldiak
maiatzaren 4an hasi ziren Musikene
kantu kontzertuarekin: Antiguako San
Sebastian elizan Saioa Goñi eta Carolina
Luquin sopranoak, Jon Imanol Etxabe
baritonoa eta Alaitz Artola pianista
elkartu ziren. Asteazkenean, Basoetxea
elkartean, Joxemari Iriondoren "Pilota eta
bertsoak" liburuaren aurkezpena egin
zuten, hiru bertsolariren saioak
lagunduta: Amaia Agirre, Anjel Mari
Peñagarikano eta Xabier Euzkitze.

Argazki erakusketa bat ere antolatu
dute, bi zatitan banatuta. Batetik, Lugaritz
kultur etxean Dabid Argindar
argazkilariaren lana egongo da ikusgai,
"Pilota zuri-beltzean" izenburupean.
Erabat zehaztu gabe dagoen arren,

maiatza amaitu aurretik irekiko da eta
astelehenetik ostiralera bisitatu ahal
izango da 16.00etatik 20.30era. Bestetik,
abuztuan, frontoi alboko merkatu
zaharrean, bi argazki bilduma erakutsiko
dituzte: Dabid Argindar beraren beste lan
sorta bat, "Paretaren mintzoa" izenekoa,
eta Foto Mikiren argazkiekin osatutako
"Pilota Antigua auzoan".


Abuzturako, torneoak jokatzen den
hilabeterako, beste ekitaldi batzuk ere
antolatu dituzte. Adibidez, Antiguako
torneotik pasatutako profesional ohien
arteko partida bat, Ekaitz Saralegi-Peio
Martinez de Eulate eta Oinatz
Bengoetxea-Juantxo Koka bikoteekin.
Torneoa abuztuaren 8an hasiko da eta
finalak irailaren 2an jokatuko dira.

Ez omen da azken urteeta-ko kontua. Lehen ere Antiguako Txapelketak ospe handia zuen, nahiz eta pilota mundua oso desberdina zen garai hartan. «Ni gogoratzen naizenetik, pilotari onenek Antiguako jokatu nahi izan dute. Are gehiago, garai batean oso arraroa egiten zen pilotari bat profesionaletara igotzea lehenago Antiguako torneo irabazi gabe. Noski, orain oso desberdina da, pilotariak oso gazterik igarotzen direlako profesionaletara, 18 edo 19 urterekin askotan. Baina lehen ez zen horrela izaten; afizionatu mailan asko erakutsi behar zenuen profesional bilakatzeko, urtean bat igoko zen asko jota. 1950eko hamarkadaz ari naiz, eta pilotari batek Antiguako torneo ez bazuen irabazi pentsatzen zen ez zuela behar adina erakutsi gora egiteko».

Txapelketak pilotarien aldetik duen estimua oso lotuta dago bertan bizi den giro beroarekin. «Harmaila beti beteta egoten da eta zaleek pilotaria oso gertu sentitzen dute. Jendearen komentarioak ere entzun egiten dituzte. Alderantziz ere bai: ikusleak pilotaria oso gertu ikusten du, arnasestuak ere entzuten ditu. Hori oso gustagarria da. Egia da frontoi hau txikia dela eta ez dela zaila betetzea, baina handia hutsik baino ederragoa da txikia beteta».

BILAKAERAREN TESTIGU

Jesus Mari Rubio 1936ko urtarilaren 15ean jaio zen, 87 urte ditu, eta gertu-gertutik bizi izan du txapelketaren bilakara. «Nire lehen oroitzapenak 17 edo 18 urte nituenekoak dira, 1954-1955 ingurukoak. Nire



eginkizuna emaitzak eta ondorengo partidak egunkarietako egoitzetara eramatea izaten zen. Orduan hiru egunkari nagusi zeuden hemen inguruan: El Diario Vasco, La Voz de España eta Unidad».

Hortik abiatuta, eta parentesi pare bat kenduta, ia bizitza osoa eman du txapelketaren antolakuntzan. «Lehenik, 1971-1972 urte inguruan itzuli nintzen. Jendea falta zutela entzun nuen eta astia neukanez, neure burua eskaini

Ezkerrean, Aimar Olaizola eta Abel Barriola, Antiguako, bikote osatuta. Eskuinean goian, 2013an hiru txapeldun handiri egindako omenaldia: Julian Retegi, Miguel Gallastegi eta Ruben Beloki. Eta behean finalen egunean presoan alde egiten den ekitaldia. GAUR8 - Juan Carlos RUIZ | FOKU - Idoia ZABALETA | FOKU

Jesus Mari Rubiok ikusi duen aldaketetako bat diru-iturrietan dago. Garai batean aurrekontuaren %80 diru publikoak osatzen zuen; egun, aldiz, %15en bueltan ibiltzen da

Zale eta babesleen fideltasuna eskertzen du Rubiok. Beti-betiko zaleentzat bazkari bat prestatuko omen dute, eta babesleen artean ere ba omen dira 1996tik urtero laguntzen dutenak



nuen. Gainera, urte haietan Jakintza Ikastolaren zuzendaritza batzordean egotea tokatu zitzaidan, eta garai hartan ikastolak hartua zuen torneoaren ardura. Horregatik urte haietan bi batzordeetan egon nintzen. 1970-1971 urteetatik 1986-1987 urte bitartean izango zen».

Azken zikloa 1996an hasi zuen Rubiok. «1992. eta 1993. urteetan ez zen torneoorik jokatu, antolatzaileek ez zutelako diru nahikorik lortzen. Eta 1994an, Patxi Sansinenea eta Tomas Ezeiza izan ziren torneoaren berriz ere martxan jarri zutenak. Antolakuntza modua aldatu egin zuten, gaur egun Antiguako Pilotazaleok izena duen elkarte sortuta. Pilota torneoaren aurrera eramateko bereziki sortutako erakundea da, eta auzoko talde eta elkarte ezagunenek hartzen dute

parte bertan. Iztingorra, Basoetxea, Sansustene, futboleko Antiguoko, Antiguotarrak, Txirain, Izurun... Denek dute ordezkaritza batzordean. Eta horrela jarraitu du 1994tik gaur arte. Ni 1996an batu nintzen, Patxi deitu zidala-ko», gogoratu du.

Aurrera begira, osasuntsu ikusten du txapelketa, nahiz eta berak lekukoa hartuko dion norbait aurkitu nahi duen. «Gure taldean oso jende langile eta jatorra daukagu, hiru gazte eta jubilatuko, edozertan laguntzeko prest daudenak, baina ez dute arduradun nagusi izan nahi; elkarteko lehendakari izateko inongo asmorik ez dute, adibidez. Ez da normala nire adinarekin kirol elkarte baten buru egotea; jubilatuko elkarte batean, agian, bai, baina kirolean...», esan digu txantxetan.



Garazi GOIA - @GaraziGoia
Idazlea

Intentzioa ez da nahikoa

Berrogei pertsona geunden bilera gela hartan eta ni nintzen emakume bakarra. «Begira ezazue zuen inguruan, zer nabaritzen duzue?», galdetu nien. «Enpresa honen etorkizuna definitzen ari gara, gizonen ideiekin, gizonentzat diseinatutako modelo batean».

Berriro ere denboran atzera egiten nuen sentsazio gogai-karriak gain hartu ninduen.

Ondorengo egunean, saio bat moderatzen nuen New Yorken, nire lantokian ezarri dudana "Emakumeak lidergoan" plataformaren testuinguruan. AEBetan ikus-entzunezkoen eremuan erreferentea den emakume bat nuen solaskide, Rebekah Dopp; bere ibilbide profesionalean hainbat traba gainditzeaz gain, emakumeen ahotsaren aztarna sakona uzten ari da eta hamaika arrakasta lortu ditu. Horrez gain, genero berdintasuna azaleratzeko erakunde bat sortu zuen, eta eragin handiko jendea bildu du

horren inguruan: Gloria Steinem, Abby Wambach, Kimberlé Crenshaw eta beste batzuekin lan egin du, adibidez. "Ezinezkoa den horrek motibatuta" da enpresaren leloa. Miresgarria.

Bi gai landu genituen saioan: nola neurtzen dugu gure intentzioaren eragina eta konfiantzazko aliatuak edukitzearen garrantzia.

Kontakizun positibo batean oinarritutako saioak dira. Badakigu zein den arazoaren funtsa, badakigu emakumeak zergatik ez dauden zuzendaritza postuetan. Ez daukagu behin eta berriz hori eztabaidatu eta energia negatiboa sortzeko beharrik. Gauza bakarra eskatzen diet saiora etortzen direnei: han entzundakotik edo ikasitakotik gauza bat aplikatzeko egunerokoan. Intentzioa ez da nahikoa. Aldaketa bat behar dugu, aldaketa iraunkor bat. Hemendik urtebetera elkarriketa beraren inguruan bildu ez gaitezen. Eskatzen dizkiedan urrats txiki horiek,

egunero behin eta berriz egin beharreko horiek, denon kolektibotasunean ematen ari garen aldaketaren eroaleak dira.

Arrakastatsuak diren emakumeak ez dira beraien kabuz iritsi dauden lekuetara. Dopp-ek aholku zorrotza eman zigun denoi: ni beste emakume (eta gizon) batzuen laguntzaz iritsi naiz hona. 'Aliatuak' edo 'sponsor'-ak esaten zaie ingelesez. Ibilbidean zure alde apustu egingo duten horiek, alegia; zure izena zabalduko dutenak; erabakiak hartzen diren geletan zu ez egonda ere, zure izena aipatuko dutenak; zure ahultasun eta zaurgarritasuna erakusteko ateak irekiko dizkizuten horiek.


Bezperako bilerako hogeitaz gizonetako saiora etortzera "behartu" nituen. Ez nien ezezkoa esateko aukera eman. Genero ezberdintasun arazoak emakumeen artean bakarrik eztabaidatuz ez ditugu-eta erantzunak aurkituko. Haietatik bi etorri zitzaizkidan saioaren amaieran eta eskerrak eman zizkidaten: agidanez, orain ulertzen dute zer egin nahi dudana saio horietan eta lagungarria izan zela esan zidaten. Ezin ditut denak "bihurtu", eta hori ere ez da nire helburua. Baina batzuegan sentsibilitatea uztartzea ezinbestekoa da. Hori zen egun hartan nik eman nuen urrats txikia. •



Arrakasta izan duten emakumeak ez dira bakarrik iritsi horra: aliatuak ezinbestekoak dira. GAUR8

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



JOSEBA OLALDE AZKORRETA. OLALDE FAMILIAREN FUNTSA.

BIXENTE AMESTOY MARGOLARIA, JOSEBA OLALDE AZKORRETAREN KAMERATIK

Joseba Olalde Azkorreta argazkilari gasteiztarra bat-batean hil zen 2004an, 45 urterekin. Aitaren eraginez, oso gaztetan hasi zen irudiaren munduan murgiltzen. 1982 eta 1984 artean Londresko Camden Institute-n argazkigintzan trebatu zen. 1988tik aurrera prentsarekin kolaborazioak hasi zituen, lehenik Eginen eta geroago Euskaldunon Egunkarian. Hainbat aldizkaritan kolaboratu zuen: Argia, El Tubo, Resiste... Urte haietan, Hertzainak, La Polla Records, Negu Gorriak, 7 Eskale, Soziedad Alkoholika eta antzeko taldeak erretratu zituen bere kamerarekin. 1990ean Eusko Jaurlaritzak antolatutako Sustatu sarien deialdian prentsako lehen saria eskuratu zuen. Bere argazkiek joan den mendeko 90eko hamarkadan argitaratutako Arabako kartel turistiko asko ilustratu zituzten. Josebaren lanik garrantzitsuenetako bat Arabako Errioxako Remelluri upategiaren enkargua izan zen, mahastiei eta upategiko lanari argazkiak ateratzeko. Joseba hil zenean argitaratu zen lan hori, Nestor Basterretxearen sarrera batekin eta Jon Maia, Unai Iturriaga eta Igor Elortzaren testuekin. Artikulua ilustratzen duen irudia Bixente Amestoy margolariaren erretratua da, 90eko hamarkadan Remelluriko ermitan pintatzen aritu zen urteetan. Argazkilarientzat posatzen, bere "Paradisua" obraren ondoan dago.



GAUR8 *ireki gure leihoa*

